




Durangoko Zarataren aurkako Ekintza Plana

2024-2029

AURKIBIDEA

1. Sarrera	2
1.1. Aurrekariak.....	2
2. Helburua	4
3. Erreferentziazko lege-esparrua.....	4
4. Zarata Maparen emaitzen analisia.....	5
4.1. Jarduketa Eremu Potentzialak identifikatzea	6
4.2. Eremu Lasaia identifikatzea	7
5. Lehenetsuneko Jarduketa Eremuen analisia	8
6. Eremu Lasaia analisia.....	16
6.1. Eremu Lasaia egoeraren laburpena.....	27
7. Jarduketan estrategia	27
7.1. Lehenetsuneko Jarduketa Planak	27
7.1.1. Lehenetsuneko Jarduketa Plana Bizkaibusean eragin akustikoa murrizteko	27
7.1.2. Lehenetsuneko Jarduketa Plana bizitegi-inguruneetan ibilgailu astunen trafikoa murrizteko	28
7.1.3. Lehenetsuneko Jarduketa Plana udalerriko iparraldeko sarbidean trafikoa arintzeko	29
7.2. Epe Luzerako Estrategia.....	29
7.2.1. Mugikortasun-estrategia	29
7.2.2. Bide-zoruak mantentzeko estrategiak (asfaltatze-kanpainak)	31
7.2.3. Udal zerbitzuen emisio akustikoak murrizteko estrategia	31
7.2.4. Salgaien hiri-banaketaren emisio akustikoak minimizatzeko estrategia	32
7.2.5. Eremu Lasaia babesteko estrategia	32
7.2.6. Aisialdi-jardueren zarata kudeatzeko estrategia	33
7.2.7. Hirigune Historikoan aisialdi-jardueren zarata kudeatzeko estrategia	37
7.2.8. Obren zarata kontrolatzeko estrategia	39
7.2.9. Irizpide akustikoak plangintzan txertatzeko estrategia	40
7.2.10. Industria-zarata kontrolatzeko estrategia	40
7.3. Ekintza Planaren eraginpeko lurralde-eremuari lotutako beste Plan eta Programa batzuk.....	40
7.3.1. Durango Mugikortasun Iraunkorreko Plana (2010-2025), 2010eko iraila.	40
7.3.2. Durango Sare Berdeko Paisaiaren Ekintza Plana	41
7.3.3. Udal Araudia	45
7.4. Hartu beharreko neurrien laburpena	45
8. Jarraipen-plana	46
9. Zarataren aurkako Ekintza Planean parte hartzeko prozesua.....	46
10. Jendaurrean jartzeko izapidean jasotako alegazioak edo oharra.....	46
Anexo. I. Zarataren aurkako Ekintza Plan honetan jasotako neurrien eta ekimenen zerrenda.....	47

1. SARRERA

Ekintza Plan hau 2024-2029 aldiari dagokio, eta jarraipena ematen dio 2018-2022 urteetarako ezarritako aurreko planean zehaztutako jarduketei.

1.1. AURREKARIAK

Durangoko Udalak esperientzia zabala du zarataren aurkako borrokan. Hala frogatzen dute horri dagokionez udalerrian gauzatu diren ekimenek, gaur egungo lege-esparruaren barruan gauzatu direnak, bai Europa mailako esparruan (2002/49/EE Zuzentaraua, Ingurune-zarataren Ebaluazioari eta Kudeaketari buruzkoa, aurrerantzean END), bai estatu mailakoan (37/2003 Legea, azaroaren 17koa, zaratari buruzkoa, eta hura artikulatzen duten Errege Dekretuak¹) bai erkidego mailakoan (213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzkoa).

Zehazki, Durangok Zarata Mapa egin zuen 2014an, eta hari lotutako 2018-2022 Ekintza Plana. 2014ko Zarata Mapa osatzeko, ikerketa psikosozial bat egin zen; horri esker, informazioa eskuratu zen pertsonentzat eragozpen ziren soinu-iturriei buruz. Hala, 2018-2022 Ekintza Planak erantzun egiten zion Zarata Mapan ebaluatzen ez ziren jardueren inpaktuari.

Planean honakoak identifikatu ziren:

- Babes Akustiko Bereziko Eremu potentzialak (BABE)
- Lehenasunezko Jarduketa Eremuak (LJE)
- Hiri Eremu Lasai (HEL) izendatzeko hautagaiak

Planak ezarri egiten zituen Babes Akustiko Bereziko Eremu (BABE) bakoitzari zegokion Eremu Plan Espezifikoak definitzeko ildoak. Irizpideak, batez ere, honako hauei buruzkoak ziren:

- Hiriko trafikoaren eragina duten BABEentzako Eremu Planak;
- Errepideko trafikoaren eragina duten BABEentzako Eremu Planak; eta
- Industriaren (Fumbarri, CMI Aeronautica SL eta Jesus Oñate y Hnos.) eragina duten BABEentzako Eremu Plana.

Bestalde, egikaritzean islatzen zen bezala, lehenetsi egin dira BABEetarako hautagai ziren eremuak. Ondorioz, honako BABE hauek izendatu dira, baita horiei dagozkien Eremu Planak ere:

- “HAPB2-SAN FAUSTO” BABEa
- “EU-2 BIRJINOSTE” BABEa
- “EU-10 LARRASOLOETA” BABEa

¹ 1513/2005 Errege Dekretua, abenduaren 16koa, Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duena ingurune-zarataren ebaluazioari eta kudeaketari dagokienez
1367/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa, Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duena zonifikazio akustikoari, kalitate helburuei eta emisio akustikoei dagokienez.

■ “EU-16 ARRIPAUSUETA” BABEa

1. taula Durangoko Udalerriko Babes Akustiko Bereziko Eremuak.

	
BABE. HAPB2-SAN FAUSTO	EU-2 BIRJINOSTE BABEa
	
BABE. EU-10 LARRASOLOETA	EU-16 ARRIPAUSUETA BABEa

Aurreko planean definitutako Lehenetsunezko Jarduketa Eremuek (LJE) arreta jartzen zuten Zarata Mapan jasota ez zeuden baina eragozpenak sortzen zituzten jardueretan.

- Festa eta Azoketarako LJE
- Eraikuntza- eta konponketa-lanengatik LJE
- Zabor-bilketa eta kale-garbiketarik LJE
- Gaueko aisiaren zaratagatik LJE

10.000 biztanletik gorako udalerrietarako Zarata Mapak egiteko EAEko kutsadura akustikoari buruzko 213/2012 Dekretuak ezarritako egutegiari jarraituz, Durangok Zarata Mapa eguneratu du berriki, 2022. urteko udalerriko egoera akustikoa islatzeko. Jarduketa horrek, halaber, Zonifikazio Akustikoa eguneratzea ere ekarri du, eta, hala, aurreko bertsioetik gaur arte egindako garapen berriak jaso dira.

Zarata Mapa berria, PCI/1319/2018 AGINDUA aplikatuz, zarata ebaluatzeko metodo komun berria (CNOSSOS-EU) aplikatuta egin da, zeina 2015/996 eta 2021/1226 zuzentaraueetan definitzen baita.

2. HELBURUA

Udalerriko ingurune akustikoa hobetzea ingurune soinu-maila murriztuta, kalitate akustikoko helburuak lortzeko, diagnostiko teknikoaren arabera helburuok betetzen ez diren eremuetan, eta udalerriko Eremu Lasaiak babestuta, herritarren bizi-kalitatea hobetzeko.

3. ERREFERENTZIAZKO LEGE-ESPARRUA

Lehen esan bezala, Durango bezalako udalerrri batean, zaratak eragindako kutsadura kudeatzeko erreferentziazko lege-esparrua Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzko 213/2012 Dekretua da, eta ildo horretan:

- Ekintza Plan honek 17. artikuluan deskribatutako edukia jasotzen du.
- Planaren I. eranskinean ezarritako Kalitate Akustikoko Helburuak (KAH) baliatu dira ingurune-zarataren eraginpean dauden eremuak eta Eremu Lasaiak identifikatzeko, indarrean dagoen udalerriko zonifikazio akustikoaren arabera.

Babes-maila areagotzeko, nabarmendu beharra dago E) motako eremu sentikorren ez dauden eraikin sentikorrek, eremu txikia hartzen dutenez, babestu egingo direla, fatxaden kanpoaldean egiten den erabilerarekin lotutako KAHak bete daitezten eta, nolahi ere, barruko espazioan exijitzen diren KAHak bete daitezten.

KAH horiei gehitu behar zaie, gainera, Eremu Lasaietan L_d 60 dBA-ko balioa betetzeko helburua, bermatu ahal izateko eremu horietan aisiaz gozatzen duten durangarrentzako espazioa eskaintzen dela.

2. taula. Lehendik dauden eremu urbanizatuak aplikatu beharreko zarataren kalitate akustikoko helburuak.

Eremu akustiko mota		Zarata-indizeak		
		L_d	L_e	L_n
E	Kutsadura akustikoaren aurka babes berezia behar duten osasun-, irakaskuntza- eta kultura-erabilerako lurzorua nagusi den lurralde-esparru edo -sektoreak.	60	60	50
A	Bizitegi-erabilerako lurzorua nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.	65	65	55
D	c) lurralde-esparru edo -sektoreak, non nagusi baitira c) atalean jasotakoaz bestelako hirugarren sektoreko erabilerako lurzorua.	70	70	65
C	Jolaserako eta ikuskizunetarako lurzorua nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.	73	73	63
B	Industria-erabilerako lurzorua nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.	75	75	65
F	Garraio-azpiegiturako sistema orokorrek edo haiek behar dituzten beste ekipamendu publiko batzuek eragindako lurralde-esparru edo -sektoreak.	(1)	(1)	(1)

(1) Eremuaren mugan, mugakide duten eremuaren zonifikazio-tipologiari dagozkionak.

- Etorkizunean hiri-garapen bat izatea aurreikusten den eremu akustikoek —hirigintza-erabileren birkalifikazio-kasuak barne— lehendik dauden eremu urbanizatuak baino 5 dBA gutxiagoko kalitate-helburuak izango dituzte kanpoaldeko eremuetarako.
- Kanpoan aplikatu beharreko kalitate akustikoaren helburuek erreferentzia hauek dituzte: lurzorua mailatik 2 m-ko altuerara dauden puntuak eta, kanporantz leiho bat duten fatxaden kasuan, eraikinaren altuera guztiak.
- Dekretu horren 10. artikuluko 1. eta 2. ataletan aipatzen diren zarata-mapak egiteari dagokionez, ebaluazio akustikoa egiteko, taula honetako balioak hartuko dira kontuan, zeinek lurraren gaineko 4 m-ko altuerako erreferentzia jasotzen baitute.

4. ZARATA MAPAREN EMAITZEN ANALISIA

Ekintza Plana garatzeko, kontuan hartu da *Zarata Mapa. Durangoko egoera akustikoaren diagnostikoa*, 2023an landua, erreferentziako lege autonomikoetan xedatutakoa betez.

Zarata Mapa egiteko, hainbat kalkulu akustiko egin behar dira, informazioa bi mailatan lortzeko:

- Lurretik 4 metrora iristen den zarata-maila (isofono-mapekin adierazita).
- Zarata-maila erasokorra, lurretik 4 metrora iristen dena eraikin sentikorren fatxadetara: etxebizitzak eta kultura-, osasun- eta hezkuntza-eraikinak (irudikatu egin dira fatxaden mapen bidez eta zarataren eraginpean dagoen biztanleriaren eta/edo eraikinaren emaitzen taulen bidez).
- Zarata-maila erasokorra, eraikin sentikorren fatxaden edozein altueratara iristen dena: etxebizitzak eta kultura-, osasun- eta hezkuntza-eraikinak (fatxaden mapekin eta zarataren eraginpean dagoen biztanleriaren eta/edo eraikinaren emaitzen taulekin irudikatuta).

Jarraian, kalkulu horien emaitza aipagarrienak laburbildu dira.

- Biztanleengan duen eraginaren emaitzak (%), kontuan hartuta eraikinak erabiltzen dituen biztanleria, eraikin bakoitzaren kanpoko fatxada perimetralean banatuta, lurzorutik 4 m-ko altuerara iristen den soinu-mailaren eraginpean.

3. taula. Durangoko udalerrian zarataren eraginpean dauden biztanleen portzentajea.

	Eraginpean dauden biztanleen portzentajea.		
	L_d	L_e	L_n
< 45 dBA	% 17,06	% 23,28	% 49,73
45-50 dBA	% 14,60	% 18,02	% 32,97
50-55 dBA	% 22,33	% 27,31	% 15,38
55-60 dBA	% 30,08	% 25,52	% 1,83
60-65 dBA	% 13,51	% 5,77	% 0,08
65-70 dBA	% 2,42	% 0,09	% 0,00

>70 dBA	% 0,00	% 0,00	% 0,00
---------	--------	--------	--------

Emaitzek erakusten dutenez, Kalitate Akustikoko Helburuekin alderatuta, nagusiki bizitegi-erabilera duen eremu akustiko batek jasan beharko lukeen baino zarata-maila handiagoa jasaten dute Durangoko biztanleen **% 2,42k** egunez, **% 0,09k** arratsaldez, eta **% 1,91k** gauez.

4.1. JARDUKETA EREMU POTENTZIALAK IDENTIFIKATZEA

Maparen emaitzen ebaluazioan lortutako emaitzak ikusita, Ekintza Plana egitean arreta jarri beharra dago identifikatutako eremu hauetan:

1. Alluitz kalea (Sasikoa kalearen parean)
2. Frai Juan Zumarraga kalea – Landako etorbidea
3. Larrasoloeta kalea
4. Montevideo-Fauste
5. Gasteiz Bidea kalea – BI 3336
6. San Roke bidea
7. Montorreta kalea
8. Frantzisko Ibarra kalea

4. n zerrenda bat dago, non jasotzen baitira egunez 60 dB-tik gorako soinu-maila jasaten duten eta beren funtzioagatik babes akustiko berezia behar duten eraikin sentikorrak (osasun- eta hezkuntza-erabilera).

4. taula. Akustikoki sentikorrak diren Durangoko Udalerriko eraikinen zerrenda.

Izena	L _d baliorik altuena	L _e baliorik altuena	L _n baliorik altuena
Fray Juan de Zumarraga BHI	65,3	61,5	54,0
Landakoko osasun-zentroa	64,3	60,7	53,3
Landako eskola HLHI	62,4	59,1	52,6
Maristak Durango Ikastetxea	62,2	58,3	50,7
Astarloa adinekoen egoitza eta eguneko zentroa	62,3	59,3	51,4
Tabira Berri adinekoen egoitza	62,3	59,2	51,3
Berbaro Elkartea	62,0	58,4	50,8
Kurutziaga Ikastola	61,7	59,1	52,5
Joxe Miel Barandiaran adinekoen egoitza	61,3	57,7	49,9
Jesuitak Ikastetxea	61,3	57,6	49,8
Maristak Durango Ikastetxea	60,7	57,6	49,8
Zabalarra Eskola	60,4	57,6	50,2
Durango OLH	58,9	55,0	47,5
Hizkuntza Eskola Ofiziala	58,9	55,6	47,8
Musika Eskola eta Kontserbatorioa	58,7	55,0	47,4

Izena	L _d baliorik altuena	L _e baliorik altuena	L _n baliorik altuena
San Antonio Ikastetxea	57,9	54,9	47,1
Ibaizabal Ikastola	57,9	54,6	46,8
Poliklinika Durango	57,3	53,7	45,9
Nevers Ikastetxea	57,1	54,4	48,4
Anbulatorio Zaharra – Herriko Gudarien kalea	56,9	53,3	45,7
Kirolene	56,5	54,4	48,8
San Antonio - Sta. Rita Ikastetxea	49,7	47,5	43,0

Lortutako baliorik altuenak jaso dira taulan, ageri diren zentroen parte den edozein eraikinetan eskuratutakoak.

4.2. EREMU LASAIK IDENTIFIKATZEA

Maparen emaitzei esker, identifikatu egin daitezke udalerriko Eremu Lasaiak, hau da, aplikatu beharreko Kalitate Akustikoko Helburuetan jasotakoa baino soinu-maila baxuagoa duten eremuak. Gai hori bereziki garrantzitsua da Plan honetarako, esan bezala, Eremu Lasaiak zaintzea baitu helburuetako bat.

Ekintza Plan honen bidez, Hiri Eremu Lasai (HEL) izendatu dira Durangoko Udalerriko honako eremu hauek:

5. taula. Durangoko Udalerriko Eremu Lasaien zerrenda. Nabarmendu egin dira arreta handiagoa behar duten eremuak, inguruan soinu-maila altuak hauteman direlako.

Izena	Azalera (m ²)	L _d -ren batez besteko balioa	σ	L _d baliorik baxuena	L _d baliorik altuena
Otamotzena parkea	20.282,0	55,5	4,4	45,1	64,3
San Ignazio parkea	3.266,6	53,9	1,6	50,9	57,7
Ezkurdi plaza	9.926,3	53,0	2,6	48,2	58,8
Etxezarreta parkea	4.315,3	58,2	2,6	52,8	62,9
Intxaurreondo parkea	4.943,7	51,8	3,4	47,6	61,2
Tabira parkea	9.194,3	54,4	2,2	45,2	59,9
Zumar parkea	4.105,9	56,0	2,5	52,6	61,4
Ibaizabal parkea	14.590,9	53,4	3,9	42,4	59,0
Zuhatzola parkea	41.267,5	50,9	2,2	46,1	57,1

Izena	Azalera (m ²)	L _d -ren batez besteko balioa	σ	L _d baliorik baxuena	L _d baliorik altuena
Pinondo parkea	4.273,3	55,4	5,4	45,0	65,2

Identifikatutako kokaleku bakoitzean, aztertu egin da proposatutako mugaketaren egoera, horietako bakoitzaren ahuleziak ebaluatze aldera; batez ere, aztertu egin dira Zarata Maparen arabera Eredu Lasaietarako kalitate helburuetan jasotako L_d balioak (L_d 60 dBA) gainditzen dituzten lekuak, horiek zaintzeko arreta handiagoa eskaini behar zaielako.

Durangoko Hiri Eredu Lasaien izendapenak barne hartzen du Ekintza Plan honen parte den Eredu Lasaien Akustika Zaintzeko Plana onartzea.

Zarata Maparekin batera, zaratak eragindako eragozpenei buruzko diagnostiko partizipatiboa egin da, eta ikuspegi teknikitik eta partizipaziotik lortutako emaitzak bat datoz eremu kaltetuenak identifikatzeari dagokionez. Hortaz, Zarata Maparen bidezko ebaluazioaren ondorioek islatu egiten dituzte hautemandako eragozpenak; hala, oinarri egokia da Ekintza Plana definitzeko prozesuan egin beharreko azterketa zehatzetarako.

Edonola ere, inkestatutako pertsonen honako zarata-gune hauek identifikatu dituzte eragozpen-iturri gisa: tabernak, terrazak, hondakinak kudeatzeko eta kaleak garbitzeko zerbitzuak; baita diskotekak, festak eta azokak ere; eta, azkenik, auzokideek sortutako zarata.

5. LEHENTASUNEZKO JARDUKETA EREMUEN ANALISIA

Arreta-eremu potentzialak identifikatu ondoren, 4.1. Jarduketa Eredu Potentzialak identifikatzea atalean jasotakoak, Lehentasunezko Jarduketa Eremutzat (aurrerantzean, LJE) hartu dira; haien egoera akustikoa aztertu da, funtsezko faktore bereizgarriak adierazita; eta neurriak eta ekimen-ildoak proposatu dira bertako ingurune akustikoa hobetzeko.

LJE 1. ALLUITZ KALEA

Errepide honek trafikoa jaso eta banatu egiten du udalerriko sarbideetako batetik. Trafiko-intentsitate handia du; ondorioz, zarata-maila handia eragiten du, batez ere egunez, jarduera handieneko aldia baita.



ZARATA-GUNE NAGUSIA	Hiriko trafikoa		
ERAGIN HANDIENENKO ALDIA	Egunez		
KALTETUTAKO BIZTANLERIA (PERTSONAK)	L_d	L_e	L_n
	48	0	6
ERAIKIN SENTIKORREN GAINEKO ERAGINA	Ez		
JARDUTEKO NEURRIAK	Neurri orokorrak		

Eremu horretan hartu beharreko neurriak bideratu egin behar dira Alluitz kaleko trafikoak eragindako zarata murriztera; beraz, udalerriko mugikortasunean esku hartuta, aurreikus daiteke hobetu egingo dela eremu horretako egoera akustikoa.

LJE 2. FRAI JUAN ZUMARRAGA KALEAREN – LANDAKO ETORBIDEAREN INGURUA

Errepide hau, inguru horri izena ematen diona, udalerriko trafikoa banatzen duen kale nagusietako bat da. Soinu-maila handiko gunea da, trafikoaren intentsitateagatik eta ibilgailu astunen portzentajeagatik; batez ere, hiriarteko autobusen zirkulazioagatik (Bizkaibus).



ZARATA-GUNE NAGUSIA	Hiriko trafikoa		
ERAGIN HANDIENeko ALDIA	Egunez		
KALTETUTAKO BIZTANLERIA (PERTSONAK)	L_D	L_E	L_N
	220	2	95
ERAIKIN SENTIKORREN GAINEKO ERAGINA	- Fray Juan de Zumarraga BHI - Maristak Durango Ikastetxea - Landako eskola HLHI - Landakoko osasun-zentroa		
JARDUTEKO NEURRIAK	⇒ Lehenatasunezko jarduketa-plana, udalerria zeharkatzen duten ibilgailu astunek (Bizkaibus) eragindako zarata murrizteko.		

Eremu horretan hartu beharreko neurriak bideratu egingo dira trafikoa murriztera (mugikortasun-neurriak) baita bertatik zirkulatzen duten ibilgailu astunen emisio akustikoak murriztera ere. Horretarako, eskatuko da udalerrriaren barruan, ibilgailu tradizionalen ordeiz, ibilgailu hibridoak modu elektrikoan erabiltzea, baita hasierako geltokietan eta geralekuetan soinu-maila murrizteko neurriak ezartzea ere. Espero da udalerrrian aurreikusitako esku-hartzeek, hala nola Hegoaldeko kanpo-eraztuna ixteak, trafikoa murriztuko dutela eta, beraz, egoera akustikoa hobetu egingo dela.

LJE 3. LARRASOLOETA

Kasu honetan, aurrekoetan bezala, errepide hau udalerraren kanpoaldeko ingurabidean dago, eta, ondorioz, trafiko-intentsitate handia du.



ZARATA-GUNE NAGUSIA	Hiriko trafikoa		
ERAGIN HANDIENeko ALDIA	Egunez		
KALTETUTAKO BIZTANLERIA (PERTSONAK)	L_D	L_E	L_N
	24	2	7
ERAIKIN SENTIKORREN GAINEKO ERAGINA	Ez		
JARDUTEKO NEURRIAK	⇒ Epe luzerako neurriak Larrasoloeta kaleko trafikoa murrizteko ⇒ Hegoaldeko eratzunaren itxiera		

Eremu honetan, aurreikusten da udalerrian hartzen diren mugikortasun-neurri orokorreiei esker (hala nola 7.2.1. Mugikortasun-estrategia atalean jasotakoak) soinu-maila murriztuko dela.

LJE 4. MONTEVIDEO-FAUSTEBIDE

Aztertutako ingurunea udalerriko sarbideetako bat da; horregatik, trafiko-intentsitate handia du, eta, beraz, baita zarata-maila handia ere. LJE2 eremuan bezala, errepide honetatik ere ibilgailu astun asko igarotzen dira, batez ere Bizkaibusen ibilbideen ondorioz.




ZARATA-GUNE NAGUSIA	Hiriko trafikoa		
ERAGIN HANDIENeko ALDIA	Egunez		
KALTETUTAKO BIZTANLERIA (PERTSONAK)	L_D	L_E	L_N
	86	5	1
ERAIKIN SENTIKORREN GAINEKO ERAGINA	Jesuitak Ikastetxea		
JARDUTEKO NEURRIAK	⇒ Ibilgailu astunen trafikoa murriztea ⇒ Montevideo – Ermodo arintzeko neurriak ⇒ Hegoaldeko eraztunaren itxiera		

Eremu horretan hartu beharreko neurriak bideratu egingo dira trafikoa murriztera (mugikortasun-neurriak) baita bertatik zirkulatzen duten ibilgailu astunen emisio akustikoak murriztera ere. Horretarako, eskatuko da udalerraren barruan, ibilgailu tradizionalen ordez, ibilgailu hibridoak modu elektrikoan erabiltzea, baita hasierako geltokietan eta geralekuetan soinu-maila murrizteko neurriak ezartzea ere.

LJE 5. GASTEIZ BIDEA– BI 3336

Errepide hori gatazka-iturri da ingurune horretan, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumenekoa da.



ZARATA-GUNE NAGUSIA	Hiriarteko trafikoa		
ERAGIN HANDIENeko ALDIA	Gauetz		
KALTETUTAKO BIZTANLERIA (PERTSONAK)	L_D	L_E	L_N
	0	4	11
ERAIKIN SENTIKORREN GAIKEKO ERAGINA	Ez		
JARDUTEKO NEURRIAK	⇒ Errepidea kudeatzen duen administrazioari jarduteko eskatzea.		

Eraginpean dagoen eremua lurzoru ez-hiritarra da; beraz, ez dago zonifikazio akustikoan sartuta. KAHak lotuta daude identifikatutako bizitegi-eraikinekin. Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatzen duen BI-623 errepideko trafikoa da kaltearen jatorria; hortaz, eremu horretan ezarri beharreko neurriak gainerako azpiegiturarekin landuko dira, eta, nolanahi ere, udalak jarraipena egingo du eremu hori Bizkaiko Errepideen Ekintza Planean sartzeari dagokionez.

LJE 6. SAN ROKE BIDEA

Eremu honetako zarata-guneak industriagunea, batez ere gauez, eta BI-623 errepidea dira.



ZARATA-GUNE NAGUSIA	Industria eta hiriko trafikoa		
ERAGIN HANDIENENKO ALDIA	Gauetz		
KALTETUTAKO BIZTANLERIA (PERTSONAK)	L_D	L_E	L_N
	1	1	162
ERAIKIN SENTIKORREN GAINEKO ERAGINA	Ez		
JARDUKEKO NEURRIAK	⇒ Industria-zarata kontrolatzeko neurriak ezartzen jarraitzea. ⇒ Hondakinak Tratatze Zentroa lekualdatzea.		

Udala harremanetan dago bertako enpresarekin, eta jakinaren gainean dago inguruan eragin akustikoa murrizteko egindako jarduketei dagokienez. Horien artean, nabarmentzekoak dira honako hauek:

- Ekoizpen-ordutegiak aldatzea eta lan zaratatsuenak eguneko ordutegira pasatzea.
- Granailaketa guneko horma isolatzea.
- Lanak martxan daudenean atea ixtea.

Industria-zaratari dagokionez, egungo ildoan lan egiten jarraitzea proposatzen da. Eremu horretatik, gainera, Garbikerren transferentzia-gunera doazen ibilgailu astunak igarotzen dira. Transferentzia-gunea udalerriko edo eskualdeko beste leku batera lekualdatzeko aukera aztertzen ari dira gaur egun; hori onuragarria litzateke inguruko biztanleentzat, eragingo lukeen hobekuntza akustikoaren ondorioz.

LJE 7. MONTORRETA

Aurreko kasuan bezala, eremu honetako zarata-guneak industriagunea eta, neurri txikiagoan, ibilgailuen trafikoa dira.



ZARATA-GUNE NAGUSIA	Industria eta hiriko trafikoa		
ERAGIN HANDIENeko ALDIA	Gauetz		
KALTETUTAKO BIZTANLERIA (PERTSONAK)	L_D	L_E	L_N
	2	0	15
ERAIKIN SENTIKORREN GAINEKO ERAGINA	Ez		
JARDUTEKO NEURRIAK	⇒ Industria-zarata kontrolatzeko neurriak ezartzen jarraitzea.		

Eremu honetarako, halaber, Eremu Plan bat egin zen 2018-2022 aldirako Ekintza Planean. Udala harremanetan dago bertako enpresekin, eta jakinaren gainean dago inguruan eragin akustikoa murrizteko egin dituzten jarduketek dagokionez, arrakastatsuak izaten ari baitira. Besteak beste, nabarmentzekoak dira honako hauek:

- Sabai arrunten ordeiz isolatzaile akustikoa duten sabaiak jartzea.
- Babes akustikoa, piezen erorketa arintzeko.
- Montorreta kaleko ibilgailuen sarbidea isolatzea.
- Lanak martxan daudenean atea ixtea.
- Barruko patioan estalkia jartzea.
- Eraikineko aireztapen-aterabideetan isilgailuak instalatzea.
- Patioa gauetz erabiltzeko debekua.

Industria-zarataren dagokionez, egungo ildoan lan egiten jarraitzea proposatzen da.

LJE 8. FRANTZISKO IBARRA KALEA

Udalerrriaren iparraldean dago, komunikazio-gune nagusietako batean. Inguruko zarata-gune nagusia hurbileko N-634 errepideko trafikoa da, udalaz gaindiko eskumenekoa.



Zarata-gune nagusia	Hiriarteko trafikoa		
Eragin handieneko aldia	Gauetz		
Kaltetutako biztanleria (pertsonak)	L_D	L_E	L_N
	0	0	39
Eraikin sentikorrak	Ez		
Jarduteko neurriak	⇒ Errepidea kudeatzen duen administrazioari jarduteko eskatzea. ⇒ Trafikoa arintzeko Lehenetsuneko Jarduketa Plana.		

Zarata-gune nagusia udalaz gaindikoa den beste LJE batzuetan bezala, kasu honetan Durangoko Udalak errepide hori kudeatzeko eskumena duen administrazioarekin jorratuko ditu eremu horretako inpaktu akustikoa murrizteko hartu beharreko neurriak.

Bestalde, aurreikusi da Frantzisko Ibarra kalean trafikoa arintzeko neurriak hartzea, inguru horretako zarata-maila kontrolatzeko; izan ere, aurreikusten da udalerrira bertatik sartzen den trafikoa handitu egingo dela N-634 errepidea arintzeko jarduketan ondoren.

6. EREMU LASAIEN ANALISIA

Zarata Mapan jasotako mailak aztertzen dira, Plan honetan izendatutako Eremu Lasaietako bakoitzean.

EL1. OTAMOTZENA PARKEA

Berdegune hau udalerrriaren ipar-mendebaldean dago, eta arreta berezia behar duen eremuetako bat da, bertako egoera akustikoa zaindu eta hobetzeko.

Izena	Azalera (m ²)	L _d -ren batez besteko balioa	σ	L _d baliorik baxuena	L _d baliorik altuena
Otamotzena parkea	20.282,0	55,5	4,4	45,1	64,3
					
ZARATA-GUNE NAGUSIA	Hiriko trafikoa				
SARE BERDEAREN PLANEKO NODOAK *	1				
IRISGARRITASUNA *	Ona				
EROSOTASUNA *	Gerizpea ematen duten zuhaitzak, haurrentzako jolas-eremuak, edateko iturriak eta komun publikoak falta dira.				
PAISAIAREN KALITATEA *	Ona				
SEGURTASUNA *	Argiteria eskasa				
ERABILERA	Berdegunean haurrak egon ohi dira, baloiekin jolasean. Hiltegi inguruan futbol-zelai txiki bat egin daiteke, berdegunea libre uzteko. Bereziki gertu dago Aldundiaren Eguneko Zentroak eta Otamotzena Auzogunetik.				
POTENTZIALTASUNA *	Altua				
EGOERA AKUSTIKOAREN ANALISIA	Trafikoaren gorakada kontrolatzea, nagusiki eremua ekialdetik eta hegoaldetik mugatzen duten errepideetan (Askatasun etorbidea eta Alluitz kalea).				

* Durangoko Sare Berdeko Paisaiaren Ekintza Planetik ateratako parametroak.

EL2. SAN IGNAZIO PARKEA

Eremu hau udalerrriaren iparraldean dago, eta oso egoera akustiko ona du.

Izena	Azalera (m ²)	L _d -ren batez besteko balioa	σ	L _d baliorik baxuena	L _d baliorik altuena
San Ignazio parkea	3.266,6	53,9	1,6	50,9	57,7
					
ZARATA-GUNE NAGUSIA	Hiriko trafikoa				
SARE BERDEAREN PLANEKO NODOAK *	3				
IRISGARRITASUNA *	Ona				
EROSOTASUNA *	Zuhaitzek gerizpea ematen dute.				
PAISAIAREN KALITATEA *	Ona, zuhaitzei esker.				
SEGURTASUNA *	Ona				
ERABILERA *	Auzoko jendea asko ibiltzen da bertan.				
POTENTZIALTASUNA *	Altzariak eta haurrentzako jolasak berritzea. Ibaiarekiko lotura hobetzeko aukera dago. Eremuaren ekialdeko muga landare-hesi bat jartzeko aukera aztertu behar da.				
EGOERA AKUSTIKOAREN ANALISIA	Maila akustiko bikaineko eremua.				

* Durangoko Sare Berdeko Paisaiaren Ekintza Planetik ateratako parametroak.

EL3. EZKURDI PLAZA

Udalerrriaren erdialdean dago, eta egoera akustiko onargarria du, batez ere kokalekua kontuan hartuta.


Izena	Azalera (m ²)	L _d -ren batez besteko balioa	σ	L _d baliorik baxuena	L _d baliorik altuena
Ezkurdi plaza	9.926,3	53,0	2,6	48,2	58,8
					
ZARATA-GUNE NAGUSIA	Hiriko trafikoa				
SARE BERDEAREN PLANEKO NODOAK *	15				
IRISGARRITASUNA *	Espazioa zatituta dago, eta irisgarritasun urria du zenbait eremutan.				
EROSOTASUNA *	Hegoaldeko eremua eroso da; iparraldekoa, berriz, ez.				
PAISAIAREN KALITATEA *	Zenbait puntutan gerizpe gehiegi dago, zuhaitz mardul eta handiengatik.				
SEGURTASUNA *	Masifikatuta dago: terrazak, haurrentzako jolasak, musika-kioskoa.				
ERABILERA *	Hegoaldeko eremuan, ona; iparraldekoan, txarra.				
POTENTZIALTASUNA *	Aztertu beharra dago. Ospatzen diren ekitaldiak kudeatzeko plana.				
EGOERA AKUSTIKOAREN ANALISIA	Egoera akustiko oso ona duen eremua.				

* Durangoko Sare Berdeko Paisaiaren Ekintza Planetik ateratako parametroak.

EL4. ETXEZARRETA PARKEA

Udalerrriaren erdialdean dago, Ezkurdi plazatik gertu. Hegoaldeko eremuak arreata berezia behar du, Galtzarreta kaletik datorren zarata dela eta.

Eremu honetan, egoera zehatzetan, bestelako trafiko-neurriak aztertzea proposatzen da. Adibidez, biribilgune bat jartzea Herriko Gudarien kalearen eta Galtzarreta kalearen arteko bidegurutzean, Eremu Lasaiaren inguruan trafikoa murrizteko.

Izena	Azalera (m ²)	L _d -ren batez besteko balioa	σ	L _d baliorik baxuena	L _d baliorik altuena
Etxezarreta parkea	4.315,3	58,2	2,6	52,8	62,9
					
ZARATA-GUNE NAGUSIA	Hiriko trafikoa				
SARE BERDEAREN PLANEKO NODOAK *	14				
IRISGARRITASUNA *	Obretan zegoen Durangoko Sare Berdearen Plana (DSBP) egin bitartean.				
EROSOTASUNA *	Gerizpea ematen duten zuhaitz handiak.				
PAISAIAREN KALITATEA *	Ona, lorategi zaharrari eta jauregiari esker.				
SEGURTASUNA *	Definitzeke, obrak amaitutakoan. Antolatu egin beharko lirateke maila akustikoaren banaketaren arabera.				
ERABILERA *	Obrak amaitutakoan ona izango da.				
POTENTZIALTASUNA *	Oso handia, Museoarekin lotura duelako.				
EGOERA AKUSTIKOAREN ANALISIA	Iparraldeak maila akustiko bikaina du. Hegoaldean, aldiz, Eremu Lasai baterako nahi baino zarata-maila handiagoa dago, batez ere Galtzarreta kaleko trafikoagatik.				

* Durangoko Sare Berdeko Paisaiaren Ekintza Planetik (DSBP) ateratako parametroak.

EL5. INTXAURRONDO PARKEA

Udalerriaren hegoaldean dago, eta arreta berezia behar du hegoaldeko mugatik datorren soinu-mailatik babesteko.

Izena	Azalera (m ²)	L _d -ren batez besteko balioa	σ	L _d baliorik baxuena	L _d baliorik altuena
Intxaurrondo parkea	4.943,7	51,8	3,4	47,6	61,2
					
ZARATA-GUNE NAGUSIA	Hiriko trafikoa				
SARE BERDEAREN PLANEKO NODOAK *	10				
IRISGARRITASUNA *	Jolasgunerako irisgarritasun ona, oro har.				
EROSOTASUNA *	Gerizpe gutxi, batez ere jolasgunean. Ondorioz, bero handiko hilabeteetan ez da eroso.				
PAISAIAREN KALITATEA *	Ona, ibaiak jendea erakartzen du.				
SEGURTASUNA *	Haurrentzako jolasgunean jende asko ibiltzen da, eta Mañaria ibaian bainatzeko gunea dago.				
ERABILERA *	Ona, batez ere Tabira Barriko adinekoen egoitza gertu dagoelako.				
POTENTZIALTASUNA *	Hobetzeko potentzialtasuna du, nagusiki haurrentzako gunen bihurtzeko eta Mañaria ibaira joateko eta bertan bainatzeko gunen gisa ere.				
EGOERA AKUSTIKOAREN ANALISIA	Arriskutsua izan daiteke Arriluzeaga kaleko trafikoagatik, eremua hegoaldetik mugatzen baitu.				

* Durangoko Sare Berdeko Paisaiaren Ekintza Planetik (DSBP) ateratako parametroak.

EL6. TABIRA PARKEA

Udalerrriaren hegoaldean dago eta Eremu Lasai izendatzeko soinu-maila onargarria du.


Izena	Azalera (m ²)	L _d -ren batez besteko balioa	σ	L _d baliorik baxuena	L _d baliorik altuena
Tabira parkea	9.194,3	54,4	2,2	45,2	59,9
					
ZARATA-GUNE NAGUSIA	Hiriko trafikoa				
SARE BERDEAREN PLANEKO NODOAK *	11				
IRISGARRITASUNA *	Ona				
EROSOTASUNA *	Oso ona.				
PAISAIAREN KALITATEA *	Ona, ingurune natural eta arkitektonikoagatik.				
SEGURTASUNA *	Iparraldean, ona; ermitaren hegoaldean, eskasa.				
ERABILERA *	Udal mailako erabilera. San Pedro jaietan ekitaldiak ospatzen dira bertan. Ikastola gertu dago.				
POTENTZIALTASUNA *	Baselizaren hegoaldea erabiltzen da. Potentzialtasun handia du ibairako sarbidea izango lukeen parke lineal bat garatzeko.				
EGOERA AKUSTIKOAREN ANALISIA	Eremu Lasai izateko ingurune soinu-maila onargarria du.				

* Durangoko Sare Berdeko Paisaiaren Ekintza Planetik (DSBP) ateratako parametroak.

EL7. ZUMAR PARKEA

Hurbil ditu aurreko bi eremuak (Intxaurrondo eta Tabira). Gaur egungo egoera akustikoa babesteko arreta behar du, nagusiki ekialdean.

Kasu honetan, bereziki, eremuaren egungo banaketak eta morfologiak ez du errazten bertan egotea eta horretaz gozatzea. Zentzu horretan, aztertu egingo da eremuaren diseinua, erosoagoa bihurtzeko eta erabilera sustatzeko beharrezko jarduketak identifikatzeko.

Izena	Azalera (m ²)	L _d -ren batez besteko balioa	σ	L _d baliorik baxuena	L _d baliorik altuena
Zumar parkea	4.105,9	56,0	2,5	52,6	61,4
					
ZARATA-GUNE NAGUSIA	Hiriko trafikoa				
SARE BERDEAREN PLANEKO NODOAK	17				
IRISGARRITASUNA *	Ona				
SEGURTASUNA *	Ona				
EGOERA AKUSTIKOAREN ANALISIA	Akustikaren ikuspuntutik, eremuaren ahulgunea ibilgailuen trafikoa da, Zumar kaletik ekialdera eta, neurri txikiagoan, Arriluzeaga kaletik hegoaldera doana.				

* Durango Sare Berdeko Paisaiaren Ekintza Planetik (DSBP) ateratako parametroak.

EL8. IBAIZABAL PARKEA

Udalerriaren iparraldean dago, eta egoera akustiko oso ona du.

Izena	Azalera (m ²)	L _d -ren batez besteko balioa	σ	L _d baliorik baxuena	L _d baliorik altuena
Ibaizabal parkea	14.590,9	53,4	3,9	42,4	59,0
					
ZARATA-GUNE NAGUSIA	Hiriko trafikoa				
SARE BERDEAREN PLANEKO NODOAK *	5				
IRISGARRITASUNA *	Ona				
EROSOTASUNA *	Erosotasun-maila handia, zuhaitzei eta berdeguneei esker.				
PAISAIAREN KALITATEA *	Altua.				
SEGURTASUNA *	Jende asko ibiltzen da bertan.				
ERABILERA *	Ona				
POTENTZIALTASUNA *	Hobetu daiteke.				
EGOERA AKUSTIKOAREN ANALISIA	Eremu Lasai izateko soinu-maila onargarria du.				

* Durangoko Sare Berdeko Paisaiaren Ekintza Planetik (DSBP) ateratako parametroak.

EL9. ZUHATZOLA PARKEA

Udalerrriaren ekialdean dago, eta Eremu Lasai guztien batez besteko baliorik baxuena du.

Izena	Azalera (m ²)	L _d -ren batez besteko balioa	σ	L _d baliorik baxuena	L _d baliorik altuena
Zuhatzola parkea	41.267,5	50,9	2,2	46,1	57,1
					
Zarata-gune nagusia	Hiriko trafikoa				
Sare Berdearen Planeko nodoak *	9				
Irisgarritasuna *	Hobetu daiteke.				
Erosotasuna *	Jolasez, kirolgunez eta altzariez ondo hornituta dago, eta ez du ostalaritzarik.				
Paisaiaren kalitatea *	Inguruaren ikuspegi polita.				
Segurtasuna *	Jende gutxi ibiltzen da bertan.				
Erabilera *	Ona				
Potentzialtasuna *	Faktoreak aztertzea erabiltzaile-kopurua handitzeko.				
Egoera akustikoaren analisia	Inguruneko soinu-maila bikaina.				

* Durangoko Sare Berdeko Paisaiaren Ekintza Planetik (DSBP) ateratako parametroak.

EL10. PINONDO PARKEA

Udalerriaren erdialdean dago. Arreta berezia behar du, inguruko trafikoa eragindako soinu-mailaren ondorioz ez dezan galdu Ereku Lasai izendapena.

Izena	Azalera (m ²)	L _d -ren batez besteko balioa	σ	L _d baliorik baxuena	L _d baliorik altuena
Pinondo parkea	4.273,3	55,4	5,4	45,0	65,2
					
Zarata-gune nagusia	Hiriko trafikoa				
Sare Berdearen Planeko nodoak *	13				
Irisgarritasuna *	Hobetu daiteke, ingurua zatituta dago.				
Erosotasuna *	Oso desegituratuta dago, nahiz eta udalerriko leku sinbolikoenetako bat izan.				
Paisaiaren kalitatea *	Altua, zuhaitzei eta ondare arkitektonikoari esker. Hala ere, zoladurak eremua zatikatzen du.				
Segurtasuna *	Herriko jaiak ospatzeko lekua da.				
Erabilera *	Ona				
Potentzialtasuna *	Oso altua, udalerrian oso eremu adierazgarria delako. Iparraldeko berdeguneekin lotzeko balio dezake, eta ibairako sarbidea izan daiteke.				
Egoera akustikoaren analisia	Sanagustinalde kaleko trafikoa eragozpen-iturri izan daiteke Ereku Lasai honetarako.				

* Durangoko Sare Berdeko Paisaiaren Ekintza Planetik (DSBP) ateratako parametroak.

6.1. EREMU LASAIEN EGOERAREN LABURPENA

Ondorio gisa, taula honetan jaso dira arreta handiena behar duten Eremu Lasaiak:

6. taula Arreta berezia behar duten Eremu Lasaien laburpena.

Izena	S (m ²)	L _d -ren batez besteko balioa	L _d baliorik altuena	Zarata-gunea
Otamotzena parkea	20.282,0	55,5	64,3	Hiriko trafikoa
Etxezarreta parkea	4.315,3	58,2	62,9	Hiriko trafikoa
Intxaurrondo parkea	4.943,7	51,8	61,2	Hiriko trafikoa
Zumar parkea	4.105,9	56,0	61,4	Hiriko trafikoa
Pinondo parkea	4.273,3	55,4	65,2	Hiriko trafikoa

Zarata Maparen emaitzen arabera, bost eremu horietako zati batzuetan gairiditu egiten dira Eremu Lasaietarako kalitate helburuetan jasotako L_d balioak (L_d 60 dBA).

Kasu guztietan, hiriko trafikoa da hori eragiten duen zarata-gunea.

7. JARDUKETEN ESTRATEGIA

Atal honetan, zehaztu egiten dira udalerrian kutsadura akustikoa murrizteko abian jarri beharreko neurriak eta ekimenak. Aplikazio-gunearen arabera, honela sailkatu dira:

- **Lehentasunezko Jarduketa Planak.** Zenbait jarduketa espezifiko biltzen dituzte, detektatutako jarduketa-eremu potentzialerako egoera zehatzak arintzeko eta hobetzeko.
- **Epe Luzerako Estrategia.** Hainbat jarduketa-lerrok osatzen dute, zeinek epe ertain eta luzera ezartzeko neurriak biltzen baitituzte, udal mailan; ondorioz, onuragarriak izango dira udalerriko osoarentzat.
- **Jarduketa Partekatuak.** Azken talde honetan kutsadura akustikoan eragina duten neurriak eta ekimenak daude, beste plan batzuetan sustatu egin direnak —hala nola Mugikortasun Planean, Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean edo Durangoko Sare Berdearen Ekintza Planean—. Horrez gain, udalerriko kutsadura akustikoaren kudeaketan eta kontrolean eragina duten hainbat udal araudi daude.

7.1. LEHENTASUNEZKO JARDUKETA PLANAK

7.1.1. LEHENTASUNEZKO JARDUKETA PLANA BIZKAIBUSEN ERAGIN AKUSTIKOA MURRIZTEKO

Helburua: Neurri honen helburua da soinu-maila murriztea Frai Juan Zumarraga kalea – Landako etorbidearen (LJE2) eta Montevideo-Fauste (LJE4) kaleen inguruan.

Ekintza: Ekimen hau bi ekintzak osatzen dute:

- ⇒ Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzea ibilgailu hibridoak erabiltzeko udalerrian zerbitzu ematen duten garraio-flotetan, udalerrian modu elektrikoan ibili daitezen, emititzen duten zarata-maila murrizteko.
- ⇒ Aztertzea zein prozedura eta protokolo jarraitzen dituzten ibilgailuek geralekuetan/hasierako geltokietan, ebaluatzeko itxaronaldietan sortzen duten zarata murriztu daitekeen (motorrak ralentian, ibilgailuen sistema hidraulikoen zarata, etab.).

Beste Plan batzuekin duen harremana: Ekintza hau lotuta dago Durangoko Mugikortasun Planarekin, 7.3.1 Durangoko Mugikortasun Iraunkorreko Plana (2010-2025), 2010eko iraila. atalean zehazten den moduan.

Gainera, Hegoaldeko kanpo-eraztuna ixteak hobetu egingo du eremu hori; aurreikusten denez, errepideko trafikoaren intentsitatea murriztuko du, eta, ondorioz, baita soinu-maila ere.

Balioespen ekonomikoa: Neurri honek ez du udalaren aurrekonturik behar.

Inplikaturako eragileak: Jarduketa hau gauzatzeko, honako eragile hauen jarduketak koordinatu beharko dira:

- ⇒ Bizkaiko Foru Aldundia
- ⇒ Durangoko Udala

7.1.2. LEHENTASUNEZKO JARDUKETA PLANA BIZITEGI-INGURUNEETAN IBILGAILU ASTUNEN TRAFIKOA MURRIZTEKO

Helburua: Etxeko Hondakinen eta Hondakin Asimilagarrien Transferentzia Gunera sartzeko San Roke Bidetik (LJE 6) igarotzen diren ibilgailu astunek sortutako eragozpenak murriztea.

Ekintza: Ekimen horren barruan dago BFArekin komunikazioa ezartzea Transferentzia Gunea udalerriko eta/edo eskualdeko beste toki batera lekualdatzeko, auzokideei eragozpenik sortuko ez dien leku batera.

Balioespen ekonomikoa: Ekintza Plan hau egiteko unean datuak falta ziren neurri horren balioespen ekonomikoa kalkulatzeko.

Inplikaturako eragileak: Jarduketa hau gauzatzeko, honako eragile hauen jarduketak koordinatu beharko dira:

- ⇒ Bizkaiko Foru Aldundia
- ⇒ Durangoko Udala
- ⇒ Durangoko Mankomunitatea

7.1.3. LEHENTASUNEZKO JARDUKETA PLANA UDALERRIKO IPARRALDEKO SARBIDEAN TRAFIKOA ARINTZEKO

Helburua: Herrira Frantzisko Ibarra kaletik (LJE 8) sartzen diren ibilgailuek sortutako zarata-maila murriztea. Iurretan N-634 errepidea arintzeko jarduketaren ondorioz, zuzeneko sarbidea dute Durangotik errepide nazionalera Frantzisko Ibarra kaletik doazen ibilgailuek, eta hortaz, trafikoa eta soinu-maila areagotu dira.



1. irudia Trafikoa arintzeko N-634 errepidean egindako jarduketa. Jarduketa horren ondorioz, Frantzisko Ibarra kaleko trafikoa areagotu egin da, eta Zumalakarregi kalekoa, aldiz, murriztu.

Ekintza: Ibaiaren gaineko zubian galtzadaren zabalera murriztea, oinezkoentzako leku gehiago uzteko; horrela, zirkulazioaren abiadura eta, ondorioz, soinu-maila murriztuko da.

Balioespen ekonomikoa: Egin beharreko jarduketa zehazten denean gauzatuko da balioespen ekonomikoa. Neurri honek ez du udalaren aurrekonturik behar.

Inplikaturako eragileak: Jarduketa hau gauzatzeko, honako eragile hauen jarduketak koordinatu beharko dira:

⇒ Uraren Euskal Agentzia, URA

⇒ Durangoko Udala

7.2. EPE LUZERA KO ESTRATEGIA


Atal honen helburua da zehaztea Planaren garapen-esparrua eta datozen 5 urteetan garatuko diren jarduketak.

7.2.1. MUGIKORTASUN-ESTRATEGIA

Helburua: Ibilgailuen trafikoaren emisioak murriztea zarata-iturrian esku hartuz, batez ere, udalerriko kaleetan dabilen ibilgailu-kopurua murriztuta.

Ekintzak: Jarduketa-lerro honetan, honako ekimen hauek daude:

- ⇒ Superetxadien estrategia (ibilbideak lehenestea). Ekimen horrek, espero denez, Eremu Lasaiak sortzea bultzatuko du. Ekimen horrek ez du eraginik detektatutako LJEetan.
- ⇒ Oinezkoentzako kaleak egiten jarraitzeko edo egun jakin batzuetan zirkulazio-murrizketak ezartzeko aukera aztertzea (esaterako, Ermodo, Zumalakarregi eta Montevideo kaleetan).
- ⇒ Hegoaldeko kanpo-eraztuna ixtea. Ekimen horrek udalerria hegoaldetik inguratzeko saihasbide gisa funtzionatuko du, eta, besteak beste, Eguzkitzako industriari zerbitzua emango dio eta trafikoa arinduko du Larrasoloeta, Faustebide-Montevideo, Landako eta Olleria kaleetan. Bestalde, trafikoaren igoera kontrolatu beharko da beste kaleetan, hala nola Arriluzean.



2. irudia Hegoaldeko kanpo-eraztuna. Iturria: Durangoko Hegoaldeko kanpo-eraztunaren itxieraren eta N-634 errepidearen bulebarizazioaren analisia, 2019ko uztaila (ezkerrean, gaur egungo egoera; eskuinean, proposatutakoa).

- ⇒ Disuasioko aparkalekuen publizitatea egitea, erabil daitezen sustatzeko eta udalerrira sartzen den ibilgailu-kopurua murrizteko.
- ⇒ Ibilgailu elektrikoen erabilera sustatzea, herrian zehar karga-guneak instalatuta.
- ⇒ Mugikortasuna eredu jasangarriagoetara hurbiltzea, honako neurri zehatz hauekin:
 - Bizikleta-sarearen edo ibilbide-sarearen gaur egungo kilometro-kopurua areagotzea.
 - BFArekin batera, Bizkaibiziren antzeko bizikleta-sistema partekatua ezartzea Durangaldean, barne hartuta lurreta, Amorebieta, Abadiño eta Izurtza udalerriak.

Beste Plan batzuekin duen harremana: Jarduketa-lerro honetako ekimen asko Durangoko Udalerriko Mugikortasun Planean jasota daude, edo lotura daukate hor jasotako jarduketekin.

Balioespen ekonomikoa: Jarduketa bakoitzaren balioespen ekonomikoa zehaztu egingo da horietako bakoitzari dagokion abiarazte-programan.

Inplikaturako eragileak: Jarduketa hau gauzatzeko, honako eragile hauen jarduketak koordinatu beharko dira:

- ⇒ Bizkaiko Foru Aldundia

⇒ Durangoko Udala

7.2.2. BIDE-ZORUAK MANTENTZEKO ESTRATEGIAK (ASFALTATZE-KANPAINAK)

Helburua: Errepideetako bide-zorua egoera onean mantentzea, irregulartasunek eta zuloek eragindako zarata saihesteko.

Ekintzak: Jarduketa-lerro honetan, honako ekimen hauek sartzen dira:

- ⇒ Datu-base edo erregistro historiko bat egitea asfaltatze-kanpainetan egindako jarduketak eta mantentze-lanak jasotzeko.
- ⇒ Trafikoak eragindako soinu-maila handia duten udalerriko eremuetarako, zerrenda bat egitea lehenesten diren asfaltatze-jarduketan.

Balioespen ekonomikoa: Bide-zorua zaintzeko aurreikusitako udalaren aurrekontu-partidan dago.

Inplikaturako eragileak: Jarduketa hau gauzatzeko, honako eragile hauen jarduketak koordinatu beharko dira:

⇒ Durangoko Udala.

7.2.3. UDAL ZERBITZUEN EMISIO AKUSTIKOAK MURRIZTEKO ESTRATEGIA

Helburua: Udal zerbitzuak gauzatu bitartean sortutako soinu-maila murriztea; batez ere, hondakinak biltzeko, kaleak garbitzeko eta berdeguneak mantentzeko eta zaintzeko lanetan.

Ekintzak: Jarduketa-lerro honetan, honako ekimen hauek sartzen dira:

- ⇒ Hiri-hondakinak (HHS) biltzeko eta kaleak garbitzeko zerbitzuen maiztasuna, ordutegia eta ibilbidea aztertzea, parametro horiek aldatuta eragozpenak murriztu daitezkeen ebaluatzeko. Halaber, aztertu egingo da garbiketa-txandak aldatzearen eraginkortasuna, ez daitezen udalerriko puntu jakinetan pilatu eragozpen handiena sor dezaketen ordutegietan.
- ⇒ Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legean ezarritakoa aplikatzen jarraitzea, udal flotetan emisio baxuko ibilgailuen eta makinak erabilera sustatzeari buruzkoa; zehazki, HHS eta garbiketa lizitazioetan, baita berdeguneak zaintzeko eta mantentzeko lizitazioetan ere. Hala, honako hau hartuko da kontuan:
 - Lizitatutako prozesu eta zereginetan erabiltzen diren makinek soinu-emisio baxuko makinak soilik erabiliko dituzte. Enpresak informazioa eman beharko du bermatzeko makinek bete egiten dituztela sektoreko legeria aplikagarrian (212/2012 Errege Dekretua) ezarritako eskakizunak, eta horien potentzia akustikoa zehaztu beharko du.
 - Langileei jardunbide egokien gida bat eta prestakuntza-planak eskaintzea, zereginak gauzatu bitartean zarata ahalik eta gehien murrizten dela bermatzeko.

- Bilketa-ibilbideak proposatzean, enpresek adierazi egin behar dituzte kontuan hartutako irizpide akustikoak. Halaber, zaratatsuak izan daitezkeen makinak erabiltzen dituzten zereginen ordutegi-plangintza aurkeztu beharko dute.
- Aztertuko da ea posible den erraztatzea eta hosto-bilketa makinarik gabe egitea, lehen bezala, batez ere hirigune historikoan eta kale estuetan.

Balioespen ekonomikoa: Neurri horrek ez du balioespen ekonomikorik behar.

Inplikaturako eragileak: Jarduketa hau gauzatzeko, honako eragile hauen jarduketak koordinatu beharko dira:

⇒ Durangoko Udala.

7.2.4. SALGAIEI HIRI-BANAKETAREN EMISIO AKUSTIKOAK MINIMIZATZEKO ESTRATEGIA

Helburua: Zamalanetan sortzen den soinu-maila murriztea.

Ekintzak: Jarduketa-lerro honetan, honako ekimen hauek sartzen dira:

- ⇒ Proba pilotu bat egitea erosketak kudeatzeko sistema bat ezartzeko, tokiko merkataritzari lotutako armairu adimendunak baliatuta, horiek disuasio-aparkalekuetan kokatuta.
- ⇒ Datu-base bat egitea zamalanek eragindako kexa partikularrei buruzko informazioa biltzeko, eremu bereziki gatazkatsuak identifikatzeko eta horietan jarduketak sustatzeko; adibidez, lizentziez aparteko neurri osagarriak eskatzea eta horien jarraipena egitea.
- ⇒ Saltokiei zuzendutako informazio eta ikuskapen kanpainak indartzea, zamalanak optimizatzeko eta eragiten duten zarata murrizteko hobetu beharrekoak aztertzeke.
- ⇒ Langileak kontzientziatzeko kanpainak, jokabide begirunetsuagoak har ditzaten auzokideekiko eta kaleen beste erabiltzaileekiko. Bereziki, ezaugarri jakinak dituzten eremuetan (kale estuak, ibilgailuen trafikorik eza, etab.), hala nola hirigune historikoan, oso sentikorrek direlako zamalanen zarataren aurrean.

Balioespen ekonomikoa: Neurri honek ez du balioespen ekonomikorik behar.

Inplikaturako eragileak: Jarduketa hau gauzatzeko, honako eragile hauen jarduketak koordinatu beharko dira:

⇒ Durangoko Udala

⇒ Merkatarien elkarteak

7.2.5. EREMU LASAIAK BABESTEKO ESTRATEGIA

Estrategia honek osatu egiten du Plan honetan izendatutako **Eremu Lasaiak Babesteko Plana**:

Helburua: Plan honetan identifikatutako Eremu Lasaien ingurune akustikoa babestea eta hobetzea.

Ekintzak: Estrategia honen barruan, honako ekimen hauek barne hartzen dira:

- ⇒ Plan bat ezartzea Eremu Lasaien konfort akustikoaren egoeraren jarraipena egiteko, soinu-maila —hiri-bideek, errepideek eta industriak sortutakoa— mantentzeko eta, beharrezkoa denean, hobetzeko.
- ⇒ Herritarrek Eremu Lasaiak erabili eta gozatu ditzaten sustatzea, eremu horien izaera akustikoarekin bateragarria den erabilera sustatuta.
- ⇒ Trafikoaren gehieneko abiadura 20 km/h-ra murrizteko aukera aztertzea, 6 .Eremu Lasaien analisia atalean deskribatutako Eremu Lasaien inguruan, soinu-maila altuaren eraginpean baitaude, eremu horien kanpoaldeko mugetan soinu-maila murrizteko eta herritarrek eremu horietaz gozatzeko.
- ⇒ Koordinatzea Eremu Lasaiak babesteko ekimenak eta Durangoko Sare Berdeko Paisaiaren Ekintza Planean jasotakoak.

Balioespen ekonomikoa: Jarduketa bakoitzaren balioespen ekonomikoa zehaztu egingo da horietako bakoitzari dagokion abiarazte-programan.

Beste Plan batzuekin duen harremana: Durangoko Sare Berdearen Ekintza Planean badaude espazio horiek babesteko neurriak eta ekimenak.

Inplikaturako eragileak: Jarduketa hau gauzatzeko, honako eragile hauen jarduketak koordinatu beharko dira:

- ⇒ Durangoko Udala.

7.2.6. AISIALDI-JARDUEREN ZARATA KUDEATZEKO ESTRATEGIA

Helburua: Bateragarri egitea bizitza sozial eta ludikoko jarduerak eragindako zarata eta auzokideen atsedena; batez ere, aisialdiko establezimenduen dentsitate handia duten udalerriko eremuetan, bereziki asteburueta gau eta arratsaldetan, orduan sortzen baitu eragozpen gehien ostalaritza-jarduerak eta kalean dagoen jendeak sortzen duen zaratak.

Ekintzak: Estrategia horren barruan, honako ekimen hauek proposatzen dira:

- ⇒ Aisialdiko lokalei eta horien erabiltzaileei zuzendutako jardunbide egokien gida bat egitea, elkarlanean egindakoa, aisialdi jarduerak auzokideei sortutako eragozpenak murrizteko aholku eta ohiturekin.
- ⇒ Udal araudia eratzea eta eguneratzea, aisialdiko jarduerak sortzen dituzten zarata-arazoentzako konponbide espezifikoak jaso ditzan. Besteak beste, honako hauek jasotzea terrazak eta mahaitxoak instalatzea arautzen duen ordenantzari:
 - Terrazen ordutegia murrizteko aukera, baita baimena iraungitzekoa edo, berritze kasuan, ukatzekoa ere, baldin eta haren funtzionamenduaren ondorioz gatazka akustikoak badaude.
- ⇒ Arau-haustea baldin badaude, zehapenak ezartzea, Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legean aurreikusitako zehapen-araubidearen arabera.

■ INFORMAZIO-, KONTZIENTZIAZIO- ETA SENTSIBILIZAZIO-KANPAINAK

Epigrafe honetan aisialdiak herritarrengan duen eraginari buruzko sentsibilizazio neurriak jasotzen dira, aisialdirako eskubidea eta atsedenerako eskubidea bateragarri egiteko helburuarekin.

Kanpainak, batez ere gaueko eta arratsaldeko aisialdian parte hartzen duten biztanleei zuzenduta daude, auzokideen atsedenera eta portaera zibikoa eta begirunetsua sustatzeko helburuarekin. Ildo horretan, lelo bat egitea proposatu da, *“keinu txikiei esker, hobekuntza handiak lor daitezke”* edo antzeko zentzua duena, pertsona eta eragile nagusiak inplikatzeko.

Informazio-, kontzientziazio- eta sentsibilizazio-kanpainen helburu nagusietako bat da pertsonak bide publikoan egoteak eragiten duen inpaktu akustikoa minimizatzea; batez ere, aisialdi jarduerak edo gaueko ekitaldiak amaitu osteko.

Ildo horretan, honako aukera hauek aztertuko dira:


- ⇒ Material sinplea diseinatzea, herritarrek eta ostalaritzako langileak informatzeko eta kontzientziazitzeko aisialdiak eta ekitaldiek —jendea kalean egoteak, ostalaritza-jarduerak berak eta ekitaldiek— hiri-ingurunean eta auzokideengan duten inpaktuari buruz. QR kode bat duten pegatinak edo kartelak izan daitezke, estrategia honen hasieran aipatutako jardunbide egokien gidaren webgunera zuzentzen dutenak, edo egokitzen jotzen den beste edukiren batera.
- ⇒ Irtenbide berritzaileen lehiaketak ere egin daitezke, auzoko ostalaritza-establezimenduen inguruan herritarren zarataren eragina murrizteko.
- ⇒ Beste irtenbide berritzaile batzuk sor daitezke bizilagunekin, ostalariekin, ekitaldien antolatzaileekin, hornitzaileekin, udalarekin eta bestelakoekin elkarlanean.

■ EKITALDIEN ERAGINA MURRIZTEKO NEURRIAK

Atal honetan zenbait neurri jaso dira ekitaldiak ospatzeak eragindako inpaktu akustikoa eta eragozpenak murrizteko:

- ⇒ Koordinazio-baliabideak ezartzea eskatzen diren ekitaldiak dagozkien udal arloen artean izapidetzeko, hurrengo puntuan aipatutako prozedura integralean jasotzen den moduan.
- ⇒ Prozedura integral bat ezartzea ekitaldiak kudeatzeko, non arautuko baita eskaera batek jarraitu beharreko prozedura: sarrera-erregistroa, arloei informazioa ematea —zein arlori helarazi zaion informazioa—, informazio gehiago eskatzeko epea, etab., azken ebazpena lortu arte.
- ⇒ Udal zerbitzu teknikoek emisio-mugak ezarriko dituzte, ekitaldi-motaren arabera, erabiltzen diren soinu-errefortzuko sistementzat, baita ekitaldiaren kokalekutik hurbilen dauden eta eragin handiena jasaten duten bizitegi-eraikinen fatxadaren ere.
- ⇒ Ekitaldien ordutegia eta iraupena kontrolatzea eta mugatzea, batez ere gaueko ordutegia dutenean (23:00etatik 07:00etara). Ekitaldia egiteko baldintzak kokapenaren ezaugarrien arabera erabakiko dira.

- Inbentarioaren bidez, kokalekuak ezaugarrien arabera sailkatuko dira, eta definitu egingo dira kasu bakoitzerako egokienak diren ekitaldi-motak, baita horietako bakoitzean urtean gehienez egin daitezkeen ekitaldi-kopurua ere. Gainera, ahalegina egingo da ekitaldiek beti eragile bereberei ez eragiteko, soinu-iturrien, kokalekuen eta abarren orientazioa aldatuta, ingurumen-justizia sustatzen laguntzeko².



⇒ Datu-base bat egitea egindako ekitaldiak erregistratzeko, kasu bakoitzeko faktore garrantzitsuenak barne hartuta (kokapena, ekitaldia egin bitartean dagoen soinu-maila,

² Ingurumen-justizia da ingurumen-arazoak eta -onurak gizarteko pertsona guztien artean ekitatez banatzea, banaketa horretan kontuan hartuta pertsona horien egoera komunitarioaren eta gaitasunen aitortza, eta baita haiengan eragina duten erabakietan parte hartzea ere (Hervé Espejo, 2010).

ekitaldia egitea, kexa eta erreklamazio akustikoak, etab.). Horrela, ekitaldiak kudeatu eta koordinatuko dira, ez daitezten metatu udalerriko leku jakin batzuetan.

⇒ KAHak gainditu ditzaketen ekitaldien kudeaketa eta kontrola:

- Ekitaldiaren sustatzaileek txosten tekniko bat aurkeztu beharko dute, egin nahi duten ekitaldiaren informazio guztiarekin (iraupena, kokalekua eta soinua indartzeko sistemen orientazioa, etab.), eta, horrekin batera, sortuko duen inpaktu akustikoaren azterketa bat.
- Ekitaldiaren sustatzaileek behar bezala justifikatu beharko dute zergatik den egokia, 213/2012 Dekretuaren 44. artikulua aplikatuz, kalitate akustikoko helburuak gainditzeko baimena ematea.
- Zerbitzu teknikoek eskatuko dute ekitaldiaren sustatzaileek soinua etengabe erregistratzeko sistema bat izatea, ekitaldian zehar igorritako soinu-maila kontrolatu ahal izateko.

⇒ KAHak gainditzen ez dituzten ekitaldien kudeaketa eta kontrola:

- Baimendutako musika-tresnen kopurua eta mota mugatzea.
- Sorgailu elektrikoak erabiltzeko baldintzak ezartzea, zarataren aurkako neurriak hartzeko aginduta (aldi baterako pantailak, etab.)
- Ekitaldiak terrazetan:
 - Ekitaldiaren sustatzaileek baimen berezia eskatu beharko dute.
 - Mugatu egingo dira soinua indartzeko sistemak (anplifikadoreak) eta horrelakoak baliatzen dituzten ekitaldiak.

⇒ Jaien kudeaketa eta kontrola:

Puntu honetan, hainbat egun irauten duten jai herrikoiekin eta azokekin lotutako gaiak landu dira.

- Udal zerbitzu teknikoek aztertu egingo dute udalerrian izaten diren "jaiek" sortzen duten eragin akustikoa. Banan-banan ebaluatuko da jaien programan aurreikusitako jarduera bakoitzak duen eragin partikularra, kasu bakoitzean aplikatu beharreko preskripzio eta baldintza posibleak ebaluatzeko.
- Kalitate akustikoko helburuak gainditzeko baimendu ahal izango da, 213/2012 Dekretuaren 44. artikulua aplikatuz, ezarritako prozeduraren arabera.
- Aztertu egingo da zerbitzuen prestazioa egokitze beharra, bateragarri egiteko jaiak ospatzea eta auzokideen atseden.

Balioespen ekonomikoa: Jarduketa bakoitzaren balioespen ekonomikoa zehaztu egingo da horietako bakoitzari dagokion abiarazte-programan.

Inplikaturako eragileak: Jarduketa hau gauzatzeko, honako eragile hauen jarduketak koordinatu beharko dira:

⇒ Durangoko Udala.

- ⇒ Auzo elkarteak.
- ⇒ Ostalaritza elkarteak.

7.2.7. HIRIGUNE HISTORIKOAN AISIALDI-JARDUEREN ZARATA KUDEATZEKO ESTRATEGIA

Durangoko udalerriko inguru honetan jolas- eta aisialdi-jarduera ugari metatzen dira, baita jarduera komertzial asko ere, eta, ondorioz, inguruneke zarata-maila areagotzen dute.

Inguru horretako egoera akustikoa eta inplikaturako eta kaltetutako pertsonen pertzepzioa zehazteko, ikerketa espezifiko bat egin da aisialdi-jardueren udalerriko hirigune historikoan duten eraginari buruz. Ikerketa horren emaitzak abiapuntu izan dira eremu horretako arazoak ulertzeko; hala, identifikatu egin dira inguruneke soinu-maila gehien areagotzen duten jarduerak eta horiei lotutako eragozpenak, eta zein egun eta denboralditan dagoen soinu-mailarik handiena.

Ildo horretan, atal honetan jarduketak eta ekimenak proposatu dira, aztertutako eremuan egiten diren jardueren ondoriozko egoera akustikoa baretzeko eta hobetzeko.

Jarraian proposatutako neurrien eta ekimenen helburua da Hirigune Historikoko egoera akustikoa birbideratzea eta soinu-inpaktua hobetzea. Hala, neurri eta ekimen hauek osatu egiten dituzte Ekintza Plan honen aurreko puntuan jasotako ekimenak, udalerriko gainerako lekuetan aisialdiko jardueren sortutako zarata kudeatzeari buruzkoak.

Azkenik, jarraipen plan bat gauzatuko da, hartutako neurrien eraginkortasuna ebaluatzeke eta eragindako alderdiei horren berri emateke.

■ DURANGOKO HIRIGUNE HISTORIKOA BABES AKUSTIKO BEREZIKO EREMU IZENDATZEA

Aztertu egingo da Durangoko Hirigune Historikoa Babes Akustiko Berezikoko Eremu izendatzeko beharra, horrek balio dezan bertan neurri eta ekimen espezifikoak, murriztaileagoak edo udalerrian aplikatzekoak direnetatik bereziak ezartzeko.

■ ARAUDIA BETETZEN DELA ZAINTEKO ETA KONTROLATZEKO NEURRIAK

Neurriak bultzatuko dira Durangoko Hirigune Historikoa zaintzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko, bertan araudia betetzen dela bermatzeko eta, horrela, sortutako inpaktu akustikoa minimizatzeke.

Ildo honetan, honako jarduera hauek barne hartzen dira:

- ⇒ Jardueren udal araudian ezarritako eskakizunak betetzen dituztela egiaztatzea, hala nola:
 - Terrazak dauden kasuetan, kartel batean terrazaren eremua eta kokapena adierazi behar da, argi eta garbi ikusteko moduan, ikuskapen-lanak errazteke.
 - III. eta IV. motako jardueren instalatuta izan behar dituzte, eta behar bezala funtzionatu behar dute, Ostalaritzako Ordenantzaren A6.1 artikuluan eskatzen diren soinu-mugagailuak, baita soinu-maila bistartzeko sistemak ere.

- ⇒ Araudia betetzen dela bermatzeko beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak edukitzea, batez ere jardueren funtzionamenduari dagokionez (kanpoaldera ematen duten atea, baoak eta leihoak ixtea, etab.). Zeregin horietan diharduten langileek kutsadura akustikoari buruzko prestakuntza teknikoa jasoko dute.
- ⇒ Udal instantzia eskudunen artean baterako zaintza-, kontrol- eta ikuskapen-plan edo -kanpaina espezifiko bat egitea eta garatzea, urtero berrikusi eta ebaluatuko dena.
- ⇒ Aisialdiko lokal guztiek, atean, jardueraren lizentzia ikusgai izatearekin batera, mezu bat jartzeko betebeharra ezartzea, erabiltzaileei gogorarazteko auzokideek deskantsatzeko eskubidea dutela eta zarata eragozpen-iturri dela, eta debekatuta dagoela alkohola bide publikoan kontsumitzea.
- ⇒ Ostalaritza-jardueretako beira jasotzeko ordutegia bete dadin indartzea, baita lokalen barruan beira kudeatzeko zehaztutako prozedura ere. Horretarako, jardunbide egokien beharra azpimarratuko da, eta, bete ezean, zehapenak ezarriko dira.

■ TERRAZETAKO KANPOKO INGURUNEAN ZARATA-MAILA MURRIZTEKO NEURRIAK

Bide publikoan sortzen den zarata murrizteko:

- ⇒ Terrazetako altzariek babesgarri akustiko eraginkorrak izango dituzte euskarrietan, zaratak eragindako eragozpenak minimizatzeko. Halaber, terrazaren elementuak eta altzariak pilotzea baimentzen den kasuetan, lokailuek babesgarri akustikoak edo zorro soinu-xurgatzaileak izan behar dituzte.
- ⇒ Arazoak sortzen dituzten kasuetan, terrazen espazioa kontrolatzea eta mugatzea, jende pilaketak murrizteko.
- ⇒ Terrazan elementu industrialak instalatuz gero, horien funtzionamenduak kanpoaldera transmititzen duen soinu-mailak ez du gaingidutako sektoreko araudian ezarritako muga.
- ⇒ Kontzientziazioari buruzko atalean aurreikusitako jarduketan ildotik, informazio- eta kontzientziazio-kanpainak egitea proposatzen da, terrazen erabiltzaileak eta langileak sensibilizatzeko, haien jardura eta auzokoen atsedena bateragarri egiteko (ikus horri buruzko epigrafea aurreko atalean).

■ UDAL ZERBITZUAK ESKAINTZERA ZUZENDUTAKO NEURRIAK

Puntu honetan, dokumentu honen 7.2.3 puntuan jasotako udal zerbitzu batzuk ematean sortutako eragozpenak murrizteko zenbait ekimen proposatu dira, baina arlo honi zehazki aplikatuta.

- ⇒ Gauzez egiten diren garbiketa-lanak berrantolatzea (batez ere ordutegia eta maiztasuna), auzokideei zaratagatik eragozpen gutxiago eragiteko.
- ⇒ Kontzientziazio- eta ikuskapen-kanpainak egitea kaleak ez zikintzeko, batez ere jardura handieneko denboraldien ondoren.

⇒ Dendei zuzendutako informazio- eta ikuskapen-kanpainak indartzea, hondakinen itxura hobetzeko eta bilketa arintzeko, eta horrela zarata gutxiago sortzeko.

■ **INFORMAZIO-, KONTZIENTZIAZIO- ETA SENTSIBILIZAZIO-KANPAIAK HIRIGUNE HISTORIKOAN.**

7.2.6 atalean adierazitako ekimenen ildotik, bereziki egokituko dira Durangoko Hirigune Historikoaren egoera zehatzera.

7.2.8. OBREN ZARATA KONTROLATZEKO ESTRATEGIA

Durangoko 2023ko Zarata Maparen diagnostiko partizipatiboan, udalerrian egiten diren obrak identifikatu ziren zaratak eragindako eragozpen-iturri gisa. Ildo horretan, ingurune akustikoa zein airearen kalitatea zaintzeko, udala hainbat neurri eta ekimen gauzatzen ari da, zehaztu egiten direnak Eraikuntza-lanak egitean ingurumena hobeto zaintzeko Udal Ordenantzan jasotako neurrietan.

Helburua: Bide publikoko obrak eta lanak garatzean sortzen diren eragozpenak murriztea.

Ekintzak: Estrategia honen barruan, honako ekimen hauek barne hartzen dira:

- ⇒ Udal zerbitzuek egindako obretan, tokiko araudian ezarritako eskakizunak betetzen direla bermatzea, honako hauei dagokienez:
 - Espazio publikoan hartzen duten eremua murriztea, batez ere bideko trafikorako erabiltzen dena.
 - Oztopo akustikoak (aldi baterakoak) jartzea, hala eskatzen duten jarduketaren puntuetan.
 - Material-bilketaren eta makinen ibilbideak eta ordutegiak planifikatzea, obren ingurunean duten eragina minimizatzeke.
 - Hartzaile potentzialengandik urrunen dauden lekuetan kokatzea lan zaratatsuenak egiteko guneak, eta lan horiek eragindako inpaktua murrizteko beharrezkoak diren neurriak hartzea.
 - Material-biltegiak kokatzea materiala erabiltzen den lekutik ahalik eta gertuen.
- ⇒ Obren ikuskapenak areagotzea, tokiko araudian ezarritako eskakizunak, aurreko puntuan aipatutakoak, betetzen direla bermatzeko.
- ⇒ Soinu-mugak edo ordutegi-mugak betetzetik salbuesteko baimen berezia eskatzen den obretan, kontrolak muturreraino eramango dira. Zehazki, honako hauen bidez:
 - Salbuespena justifikatzen duen txosten teknikoa aztertzea eta, ahal den neurrian, gauez egiten diren lanak zarata gutxien eragiten dutenak izatea, horien iraupena ahalik eta gehien mugatzea eta beti ahalik eta zarata gutxien eragiten duen makineria erabiltzea eskatzea.
 - Datu-base bat egitea jarduerak eta baimendutako salbuespen-motak eta -baldintzak erregistratzeko, jarduera-metaketa handiko udalerriko guneak identifikatu eta aurreikusteko, eta auzokideei eragindako eragozpenen aurkako neurriak areagotzeko.

- ⇒ Herritarrek zaratarengatik jartzen dituzten kexei dagokionez, udal zerbitzu teknikoek soinu-maila egiaztatuko dute eta, behar izanez gero, neurri gehigarriak ezarriko dituzte eragozpen-iturria ezabatzeko (makinak kapsulatzea, hesi akustikoak jartzea, etab.).

7.2.9. IRIZPIDE AKUSTIKOAK PLANGINTZAN TXERTATZEKO ESTRATEGIA

Helburua: Udalerriko hirigintza-arauan baldintzak sartzea, garapen berrien kalitate akustikoa bermatzeko.

Ekintzak: Hiri Antolamenduko Plan Orokorra egitean irizpide akustikoak sartzea, kalitate akustikoaren baldintzatzaile eta sustatzaile izan daitezen.

7.2.10. INDUSTRIA-ZARATA KONTROLATZEKO ESTRATEGIA

Helburua: Industriaguneen ingurunean sortutako inpaktu akustikoa murriztea, beharrezkoa den kasuetan.

Ekintzak: Instalazio industrialetako arduradunekin koordinatuta, plan bat ezartzea lanek sortutako zarata murrizteko neurriak hartzeko. Ekintza hori gaur egun gauzatzen ari da, eta haren ondorioz hainbat neurri hartu dira, hala nola:

- ⇒ Zarata handiena sortzen duten zereginak planifikatzea, akustikari dagokionez hain sentikorrek ez diren eguneko tarteetan egin daitezen.
- ⇒ Isolamendua indartzea soinu-maila handiena emititzen duten lanak egiten diren eremuetan.
- ⇒ Languneak akustikoki egokitzea.
- ⇒ Ateak ixtea lanak martxan dauden bitartean.
- ⇒ Isilgailuak instalatzea, edo emititzen den soinu-maila murrizteko beste soluzio batzuk.

Neurri horiei esker, lortu egin da Durangoko udalerrian industriaguneek sortzen dituzten eragozpenak murriztea.

7.3. EKINTZA PLANAREN ERAGINPEKO LURRALDE-EREMUARI LOTUTAKO BESTE PLAN ETA PROGRAMA BATZUK


7.3.1. DURANGOKO MUGIKORTASUN IRAUNKORREKO PLANA (2010-2025), 2010EKO IRAILA.

Durangoko Mugikortasun Iraunkorreko Plana funtsezko tresnetako bat da udalerraren egoera akustikoa hobetzeko. Are gehiago, kontuan hartuta ibilgailuen trafikoa dela Durangoko udalerriko ingurune soinu-mailan eragina duen zarata-iturri garrantzitsua.

Indarrean dagoen Mugikortasun Iraunkorreko Plana azken etapan dago, eta hainbat ekimen abiaraztea ekarri du, ikuspuntu akustikotik onura osagarriak ekarri dituztenak, bai trafikoaren kudeaketari dagokionez (semaforo-kontrola kentzea, biribilguneak eta aparkaleku estrategia), bai mugikortasun aktiboa sustatzeari eta emisioak murrizteari dagokionez.

Mugikortasun Iraunkorreko Planak emisioak murriztearen alde egiten du, klima-aldaketaren aurkako borrokaren ildotik, ibilgailu elektrikoa erabiltzeko neurriak barne. Hala, alderdi ugari ditu komunean Kutsadura Akustikoari buruzko Ekintza Planarekin, hala nola:

- ⇒ Oinezkoen mugikortasuna eta bizikletaren erabilera sustatzea. Horretarako bizikleta-sare bat zehaztu da (plan hau prestatzeko unean gauzatzeko prozesuan dagoena).
- ⇒ Aparkalekuak jartzea (egoiliarak, TAO eta Euskotren, Landako eta TADU aparkalekuak).
- ⇒ Zamlanetarako protokoloa, ordutegiak mugatzea, azken miliako estrategia, eta hurbileko entrega-gune bat eta hirian kargak uzteko gune bat izateko gomendioa.



4. irudia BirkaiBus sarea. Iturria: Sare Berdearen Ekintza Plana.

7.3.2. DURANGOKO SARE BERDEKO PAISAIAREN EKINTZA PLANA

Kutsadura Akustikoari buruzko Ekintza Planaren helburuetako bat da udalerriko Eremu Lasaiak babestea. Puntu horretan, antz handia du Durangoko Sare Berdeko Paisaiaren Ekintza Planarekin; horren funtzioa tenperatura eta zarata-maila arautzea da, airearen kalitatea eta soinu-paisaia hobetzea, eta atsedenerako, aisialdirako eta kirolerako espazioak egokitzea.

Sare berdea funtsezkoa da udalerraren bizigarritasunerako, osasunerako eta biztanleen ongizaterako. Paisaiari buruzko planean horietan jarduteko funtsezko espazioak proposatzen dira, baita esku-hartze multzo bat ere, hala nola kutsadura akustikoa murrizteko eta, ondorioz, soinu-paisaia hobetzeko eta herritarrei espazio libreak eta natura hurbiltzeko. Zehazki, Durangoko sare berdearen kalitaterako helburuek herritarren ongizatea eta osasuna hobetzea dute helburu:


- ⇒ Berdeguneen azaleraren ratioa orekatzea, udalerriko azalera gogor eta iragazgaitzarekin alderatuta.
- ⇒ Harrotzea eta hiria oxigenatzea.
- ⇒ Lursail degradatuak eraberritzea.
- ⇒ Hiri-inguruneak biodibertsitatea areagotzea.

⇒ Airearen eta soinu-paisaiaren kalitatea hobetzea.

⇒ Hiri-ingurunea termikoki erregulatzea.

Planak, OMEk ezartzen duenaren arabera, adierazten du Durangoko espazio libreen kopurua bezain garrantzitsua dela horiek egoki banatzea herritarrek horietatik hurbil egoteko eta haietara iristeko. Hala, ezartzen duen helburua da herritar guztiek sarbidea izatea hainbat motatako berdeguneetara: 1.000 m²-tik gorako berdeguneak, 5.000m²-tik gorakoak, hektarea batetik gorakoak eta 10 ha-tik gorakoak, oinez edo garraio publikoko joan-etorri labur baten bidez (4 km) egin daitekeen distantziara.

Hiri-mailan, Sare Berdea osatzen dute Nodoak (parkeak eta lorategiak, kirol-guneak, etab.) eta Konektoreak (zuhaiztiak, erdibizileak, biribilguneak, etab.). Espazio guztien ezaugarri nagusia da biztanleei on egiten dien sare bat ehuntzen dutela.



5. irudia Hiri Sare Berdea.

Aurreko irudian aurkezten diren nodo asko bat datoz plan honetan izendatutako Eremu Lasaietaren batekin. Ondorengo taulan, Eremu Lasai horiekin dauden elkarrekikotasunak adierazten dira.

7. taula. Eremu Lasaien elkarrekikotasuna Durangoko Sare Berdeko Ekintza Planarekin

Eremu Lasaiak	Sare Berdeko NODOak
Otamotzena parkea	1
San Ignazio parkea	3
Ezkurdi plaza	15
Etxezarreta parkea	14
Intxaurren parkea	10

Eremu Lasaia	Sare Berdeko NODOak
Tabira parkea	11
Zumar parkea	17
Ibaizabal parkea	5
Zuhatzola parkea	9
Pinondo parkea	13

Diagnostiko orokorrean hainbat datu bildu dira identifikatutako Eremu Lasai bakoitzerako, irisgarritasunari, erabilerari, erosotasunari, paisaiaren kalitateari, mantentzeari, segurtasunari eta potentzialtasunari dagokienez, eta 6 Eremu Lasaien analisia atalean egindako ebaluazioan jaso dira.

Jarraian, errepasatu egin dira Sare Berdearen Planean identifikatutako Eremu Lasai batzuetarako aurreikusitako ekintzak:

- ⇒ San Ignazio parkea, Sare Berdearen Planeko 3. Nodoa: ingurunea hobetzeko hainbat jarduketa proposatzen dira, hala nola espazioa berriz zolatzea, altzariak eta haurrentzako jolasak berritzea, eta adinekoentzako ariketa-makinak sartzeara.
- ⇒ Ezkurdi plaza, Sare Berdearen Planaren 15. Nodoa: udalerriko egungo beharrei erantzuteko, plazaren birdiseinu integrala egitea proposatzen da.
- ⇒ Intxaurrondoko parkea, Sare Berdearen Planeko 10. Nodoa: ibairako sarbidea erraztea proposatzen da, hartaz gehiago gozatzeko, baita berriz zolatzea eta gerizpeak jartzeara ere.
- ⇒ Tabira parkea, Sare Berdearen Planeko 11. Nodoa: ibairako sarbidea hobetzea proposatzen da, hartaz gehiago gozatzeko.
- ⇒ Zumar parkea, Sare Berdearen Planeko 17. Nodoa: berdeguneko maldak erabilgarri egitea, gerizpedun gunek jartzeko eta egonlekuak eta jolasak kokatzeko.
- ⇒ Pinondo parkea, Sare Berdearen Planaren 13. Nodoa: espazioa berrantolatzea proposatzen da, konexioei eta testuinguruari dagokienez egungo beharrei erantzuteko; zoladurak, altzariak eta argiteria berritzea; eta eraikinaren argiteria.


Planean jasotako ekintzak abiarazteko orduan, parte-hartze saioetan lehenestekoak zirela iritzitako eremuak bildu dira jarraian:

8. taula. Durangoko SBEP planean lehenetsitako jarduketak.

Eremu Lasaia	Sare Berdeko NODOak	Lehenetsitako eremua
Otamotzena parkea	1	Mendebaldea
San Ignazio parkea	3	--
Ezkurdi plaza	15	Iparraldea
Etxezarreta parkea	14	Iparraldea
Intxaurrondo parkea	10	Erdialde-hegoaldea

Eremu Lasaia	Sare Berdeko NODOak	Lehenetsitako eremua
Tabira parkea	11	Hegoalde
Zumar parkea	17	Ekialdea
Ibaizabal parkea	5	Erdialde-iparralde
Zuhatzola parkea	9	--
Pinondo parkea	13	Erdialde-hegoaldea

Irudi honetan eremu horiek ageri dira:



6. irudia Durangoko SBEP planean lehenetsitako jarduketak.

Bestalde, konektoreetarako definitutako jarduketa batzuek bat egiten dute Plan honetan proposatutako ekintzekin, zeinek helburu baitute izendatutako Jarduketa Eremu Potentzial batzuetan trafiko-zarata murriztea. Hori da, hain zuzen ere, Frai Juan de Zumarraga kalean eta Larrazoloetan egitekoa den jarduketaren kasua.

Sare Berdearen Planean definitutako jarduketa-jarraibide orokorrek adierazten dute zein irizpide hartu behar diren kontuan sarea osatzen duten elementuak eta egungo espazio publikoak zein potentzialak diseinatzeko. Horien artean, nabarmendu beharra dago zarata moderatua mantendu behar dela espazioen erabilera eta gozamina sustatzeko, baita estimulu desatseginen aurka babestu ere, hala nola zarata, kea, usainak eta zikinkeria.

Sare Berdeko Paisaiaren Ekintza Planak, beraz, jarduketa-ildo komunak ditu Durangon izendatutako Eremu Lasaien babeserako, irisgarritasunerako eta balioztatzeke, udalerriaren bizigarritasuna, osasuna eta biztanleen bizi-kalitatea hobetze aldera.

7.3.3. UDAL ARAUDIA

Hainbat udal arau daude funtsezkoak direnak udalerriko ingurune-zarataren kudeaketan eta kontrolean, arautu egiten baitute zaratari dagokionez eragozpen-iturri potentzial diren jardueren ezarpena eta garapena.

Arau horietako batzuk gorago aipatu dira dokumentu honetan bertan, hala nola Eraikuntza-lanak egitean ingurumena hobeto zaintzeko Udal Ordenantza. Baina alde horretatik, aipatzekoa da ere Ostalaritza Jardueren Ordenantzan ezarritakoa; izan ere, aisialdiko jardueren emisioak kontrolatzeko neurriak ezartzen ditu, baita jardueren ezarpena mugatzeko neurriak ere, jarduera-metaketa handia saihesteko eta horrek sortzen dituen eragozpenak ekiditeko.

7.4. HARTU BEHARREKO NEURRIEN LABURPENA

Honako taula honetan, laburpen gisa, aztertutako eremuak eta horietako bakoitzean hartu beharreko ekintzak jaso dira:

9. taula. Durangoko udalerrian 2024-2029 aldian zarataren aurka egiteko jarduketaren laburpena.

ID	Kaltetutako eremuak	Zarata-guneak	Planerako iruzkinak
LJE1	Alluitz kalea	Hiri-bideak	Epe luzerako estrategia: mugikortasuna
LJE1	Frai Juan Zumarraga kalea – Landako etorbidea	Hiri-bideak	Lehentasunezko Jarduketa Plana 7.1.1
LJE1	Larrasoloeta kalea	Hiri-bideak	Epe luzerako estrategia: mugikortasuna
LJE1	Montevideo-Fauste	Hiri-bideak	Lehentasunezko Jarduketa Plana: 7.1.1
LJE1	Gasteiz Bidea kalea – BI 3336	BFA errepidea	Epe luzerako estrategia: BFA
LJE1	San Roke bidea	BFA errepidea eta industria	Lehentasunezko Jarduketa Plana: 7.1.2
LJE1	Montorreta kalea	Industria	Epe luzerako estrategia: mugikortasuna
LJE1	Frantzisko Ibarra kalea	BFA errepidea	Lehentasunezko Jarduketa Plana: 7.1.3
EL1	Otamotzena parkea	Hiri-bideak	Epe luzerako estrategia:
EL4	Etkezarreta parkea	Hiri-bideak	Epe luzerako estrategia: EL eta DSBP
EL5	Intxaurrondo parkea	Hiri-bideak	Epe luzerako estrategia: EL eta DSBP
EL7	Zumar parkea	Hiri-bideak	Epe luzerako estrategia: EL eta DSBP
EL10	Pinondo parkea	Hiri-bideak	Epe luzerako estrategia: EL eta DSBP
HH	Durangoko Hirigune Historikoa	Aisialdiko jarduerak	Hirigune Historikoko jardueren zuzendutako neurri espezifikoak

Horrez gain, I. eranskinean plan honetan jasotako neurri guztien laburpen zerrenda bat dago.

8. JARRAIPEN-PLANA

2024-2029 Ekintza Plana indarrean dagoen bitartean, Jarraipen Plana egingo da neurri zuzentzaileen ezarpen- eta garapen-maila aztertzeko.

Jarraipen Plan horrek kontuan izango du Ekintza Plan honetan jasotako ekimenak gauzatzeko eta onartzeko egutegia.

Planaren jarraipenaren adierazle bakarra proposatu da: aurreikusitako jarduketan artean gauzatu direnen portzentajea. Adierazle hori urtero kalkulatu da.

9. ZARATAREN AURKAKO EKINTZA PLANEAN PARTE HARTZEKO PROZESUA

Ekintza Planean parte hartzeko prozesu bat garatu zen, ekarpenak biltzeko eta egindako proposamenak kontrastatzeko. Prozesu hori Lur Studiok eta Createllik diseinatu, koordinatu eta gauzatu dute.

Parte hartu aurretik, informazioa helarazi zitzaaien parte-hartzaileei, informatuta parte har zezaten. Horretarako, Durangoko Zarata Maparen eta Hirigune Historikoko Zarata Maparen edukiak bidali zitzaizkien parte-hartzaileei.

Informazio eta parte-hartze prozesua azaroaren 10etik 24ra bitartean gauzatu zen, hainbat kanalen bidez: aurrez aurreko saio bat auzokideekin, galdera-sortak postontzietan banatzea, ostalariei egindako elkarrizketak eta tailer partizipatibo bat udal langileekin.

Guztira, 122 pertsonak parte hartu zuten. Postaz bidalitako paperezko galdetegiak ekimenak izan zuen parte hartze handiena, eta horren atzetik, auzokideekin aurrez aurre egindako saio partizipatiboak. Udalean egindako tailerrean 12 pertsonak parte hartu zuten, Bulego Teknikokoak, Berdintasunekoak, Kulturakoak, Udaltzaingokoak eta Gizarte Ekintzakoak.

Ekintza Plan hau egiterakoan kontuan hartu dira parte hartze prozesu horren emaitzak.

10. JENDAURREAN JARTZEKO IZAPIDEAN JASOTAKO ALEGAZIOAK EDO OHARRAK

Atal hau osatu egingo da Plan hau jendaurrean jartzeko izapideak iraun bitartean, 213/2012 Dekretuaren 19. artikuluan ezarritakoa betez, jasotzen diren alegazioekin.

Anexo. I. ZARATAREN AURKAKO EKINTZA PLAN HONETAN JASOTAKO NEURRIEN ETA EKIMENEN ZERRENDAA

iD	Jarduketa-lerroa	Estrategia	Neurria	:Nori aplikatua	Eragiten die:	Zerekin erlazionatua:
7.1.1	Lehentasunezko jarduera-plana	BizkaiBUen eragin akustikoa murriztea	BFari eskatzea ohiko ibilgailuen orde z emisio akustiko txikiko ibilgailuak (ibilgailu hibridoak) jar ditzala, udalerrian sartzean modu elektrikoan funtziona dezaketanak.	LJE 2 y LJE 4	BFA Durangoko Udala	Durangoko Mugikortasun Jasangarriko Plana (2010-2025)
			Autobus gelditzeen prozedurak eta protokoloak aztertzea, horien inguruan sortzen den zarata minimizatze ko.	LJE 2 y LJE 4		
7.1.2	Lehentasunezko jarduera-plana	Bizitegi-inguruneetan ibilgailu astunen trafikoa murriztea	Etxeko Hondakinak Transferitzeko Zentroaren kokapena aldatzea.	LJE 6	Daurangoko Mankomunitatea Durangoko Udala	
7.1.3	Lehentasunezko jarduera-plana	Trafikoa baretzea udalerrriaren iparraldeko sarbidean	Ibaiaren gaineko zubian galtzadaren zabalera murriztea	LJE 8	Agencia Vasca del Agua URA Durangoko Udala	Durangoko Mugikortasun Jasangarriko Plana (2010-2025)
7.2.1	Epe luzerako estrategia	Mugikortasuna	Superetxadiak sustatzea	Udalerria	Durangoko Udala	Durangoko Mugikortasun Jasangarriko Plana (2010-2025)
			Kaleak oinezkoentzat egitea (guztiz edo partzialki). Egoiliarrentzako sarbide-murrizketak.	Udalerria	Durangoko Udala	Durangoko Mugikortasun Jasangarriko Plana (2010-2025)
			Hegoaldeko eraztuna itxi.	Udalerria	Durangoko Udala	Durangoko Mugikortasun Jasangarriko Plana (2010-2025)
			Disuasio-aparkalekuen erabilera iragartzea eta sustatzea.	Udalerria	Durangoko Udala	Durangoko Mugikortasun Jasangarriko Plana (2010-2025)
			Ibilgailu elektrikoaren erabilera sustatzea, karga-puntuak instalatuz.	Udalerria	Durangoko Udala	Durangoko Mugikortasun Jasangarriko Plana (2010-2025)
			Gaur egun erabilgarri dagoen bizikleta edo paseatzeko sarearen km kopurua handitzea.	Udalerria	Durangoko Udala	Durangoko Mugikortasun Jasangarriko Plana (2010-2025)
			Bizikleta-sistema partekatua sustatzea (Bizkaibizi)	Udalerria Durangoko Mankomunitatea	BFA Durangoko Udala	Durangoko Mugikortasun Jasangarriko Plana (2010-2025)
7.2.2	Epe luzerako estrategia	Galtzaden bide-zoruak mantentzea	Datu-base edo erregistro bat egitea asfaltatze-kanpainetan egindako jarduerekin eta horien mantentze-lanekin.	Udalerria	Durangoko Udala	
			Arazo akustiko handienak dauden eremuetan asfaltatze-jarduket en zerrenda lehenetsia egitea.	Udalerria	Durangoko Udala	
7.2.3	Epe luzerako estrategia	Udal zerbitzuen emisio akustikoak murriztea	Hiri-hondakinak biltzeko eta garbitzeko zerbitzuen maiztasuna, ordutegia eta ibilbidea aztertzea.	Udalerria	Durangoko Udala	
			Garbiketa-lanak eta hondakinak biltzeko lanak ahalik eta makina eta ibilgailu isilekoenak erabiliz egin daitezen sustatzea.	Udalerria	Durangoko Udala	
			Enpresa esleipendunei jardunbide egokien gida bat aurkezteko eskatzea, zerbitzuak ematen dituzten bitartean zarata murrizteko.	Udalerria Enpresa esleipedunak	Durangoko Udala	
			Enpresei proposatutako bilketa-ibilbideetan kontuan hartutako irizpide akustikoak aurkezteko eskatzea.	Udalerria Enpresa esleipedunak	Durangoko Udala	
			Aztertzea ea posible den eskuzko metodoak berreskuratzea, isilagoak ingurune bereziki sentikorretan.	Udalerria	Durangoko Udala	
7.2.4	Epe luzerako estrategia	Salgaien hiri-banaketan emisio akustikoak minimizatzea	Erosketak kudeatzeko sistema bat ezartzeko proba pilotu bat egitea, tokiko merkataritzari lotutako armairu adimendunen bidez, disuasio-aparkalekuetan kokatuta.	Udalerria	Durangoko Udala	
			Datu-base bat egitea, horrelako jarduer ek auzotarrei eragindako kexak biltzeko. Puntu bereziki gogaikarriak identifikatzea.	Udalerria	Durangoko Udala	
			Saltokiak informatzeko eta ikuskatzeko kanpainak indartzea, z amalanak optimizatze ko.	Udalerria	Durangoko Udala	
			Langileak prestatzeko eta kontzientziatzeko kanpainak egitea, auzokoekin eta hiriko bideen beste erabiltzaile batzuekin errespetu handiagoa izan dezaten.	Udalerria	Durangoko Udala Transportistas y repartidores	

7.2.5	Epe luzerako estrategia	Eremu lasaiak babestea	Eremu lasaien konfort akustikoaren egoeraren jarraipena egiteko plan bat ezartzea.	Udalerria	Durangoko Udala	Durangoko Sare Berdearen Ekintza Plana
			Herritarrek eremu lasaiak erabiltzea eta gozatzea sustatzea.	Udalerria	Durangoko Udala	Durangoko Sare Berdearen Ekintza Plana
			Inguruko herri barruko bideetan gehieneko zirkulazio-abiadura 20 km/h-ra murrizteko aukera aztertzea.	Udalerria	Durangoko Udala	Durangoko Mugikortasun Jasangarriko Plana (2010-2025)
			Babes-ekimenak Durangoko Sare Berdeko Paisaiaren Ekintza Planean jasotakoekin koordinatzea.	Udalerria	Durangoko Udala	Durangoko Sare Berdearen Ekintza Plana
7.2.6	Epe luzerako estrategia	Aisialdi-jardueraren zarataren kudeaketa. Generikoak	Jardunbide egokien gida bat egitea aisialdiko lokalentzat eta erabiltzaileentzat.	Udalerria	Durangoko Udala	
			Udal-araudia egitea eta eguneratzea, zaratentzako irtenbide espezifikoak jaso ditzan (kartelak jartzeko eskaera, altzariei baldintzak ezartzea edo ordutegiak murriztea)	Udalerria	Durangoko Udala	
			Zehapenak ezartzea, Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legearen zehapen-araubidearen barruan.	Udalerria	Durangoko Udala	
		Aisialdi-jardueraren zarataren kudeaketa. Ekitaldien ospakizunak	Ekitaldiak iLJEidetzeko beharrezkoak diren koordinazio-baliabideak izatea.	Udalerria	Durangoko Udala	
			Ekitaldiak kudeatzeko prozedura integral bat ezartzea, ekitaldi baten baimena eskatzeko prozedura arautzeko.	Udalerria	Durangoko Udala	
			Udal-zerbitzu teknikoek emisio-mugak ezarri ahal izango dizkiete erabiltzen diren soinu-errefortzuko sistemei, eta hurbilen dauden eraikinen fatxadetan soinu-mailen gehieneko balioak ezarri ahal izango dituzte.	Udalerria	Durangoko Udala	
			Ospakizun-ordutegia kontrolatzea eta mugatzea, batez ere gaueko 23:00etatik 07:00etara bitartean egiten bada.	Udalerria	Durangoko Udala	
			Ekitaldiak egiten parte hartzen duten eragile guztiei zuzendutako kontzientziazio- eta sentsibilizazio-kanpainak egitea, gerta daitekeen inpaktu akustikoaz kontzientziatzeko eta eragindako pertsonen etenaldi horrek iraungo duen denboraren berri emateko.	Udalerria	Durangoko Udala	
			Ekitaldiak egiteko lokalizazioen inbentarioa ezartzea eta eguneratuta edukitzea.	Udalerria	Durangoko Udala	
			Egindako ekitaldiak erregistratzeko datu-base bat egitea, kasu bakoitzeko faktore garrantzitsuenak barne.	Udalerria	Durangoko Udala	
			Kalitate akustikoen helburuak (KAH) bete ez ditzaketen gertaerak kudeatzea eta kontrolatzea (sustatzaileei txosten teknikoak eskatzea, baimen arrazoitua eskatzea, erregistratzeko eta kontrolatzeko sistemak izatea)	Udalerria	Durangoko Udala	
			KAHak urratuko ez dituzten gertaerak kudeatzea eta kontrolatzea (tresna kopurua eta mota mugatzea, sorgailu elektrikoak mugatzea, eta terrazen kasuan baimen berezia eskatzea eta amplifikazio-sistemak mugatzea)	Udalerria	Durangoko Udala Ekitaldien sustatzaileak	
			Hainbat egunetako jai herrikoien eta ferien kudeaketa eta kontrola. (KAHak ez betetzeko baimen posiblea, ekitaldiaren eragin akustikoari buruzko azterlan bat egitea, udal-zerbitzuen prestazioa egokitzea)	Udalerria	Durangoko Udala	
7.2.7	Epe luzerako estrategia	Alde-zaharrean aisialdiko zarataren kudeaketa	Eremua babes akustiko bereziko eremu izendatzea.	Alde zaharra	Durangoko Udala	
			Araudia betetzen dela zaintzea, kontrolatzea eta ikuskatzea.	Alde zaharra	Durangoko Udala	
			Terrazek eragindako zarata murrizteko neurriak hartzea (altzariak isilagoak izateko konponbideak, kasu gatazkatsuetan terrazetarako espazioa mugatzea)	Alde zaharra	Durangoko Udala	
			Udal-zerbitzuak egokitzea, batez ere gauez ematen direnak.	Alde zaharra	Durangoko Udala	
			Kaleak garbi mantentzeko kontzientziazio-kanpainak egitea.	Alde zaharra	Durangoko Udala	
			Saltokientzako informazio- eta ikuskapen-kanpainak indartzea, hondakinen kudeaketa hobetzeko eta bilketa arintzeko, zarata murriztuz.	Alde zaharra	Durangoko Udala	
			Jarduerak itxi ondoren, bide publikoan pertsonen egonaldia murrizteko ekimenak abiaraztea.	Alde zaharra	Durangoko Udala	
			Alde zaharrean aisialdiko erabiltzaileei zuzendutako informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak garatzea, jokabide zibikoa sustatzeko (kartelak instalatzea, QR kodigoak)	Alde zaharra	Durangoko Udala	
7.2.8	Epe luzerako estrategia	Obra-zaraten kontrola	Obrei buruzko udal-araudia betetzen dela bermatzea.	Udalerria	Durangoko Udala	
			Ikuskatze-lana areagotzea.	Udalerria	Durangoko Udala	
			Emisio-mugak gainditzea eskatzen duten jarduerak kudeatzea.	Udalerria	Durangoko Udala	
			Kexa eta erreklamazioen kasuan, ikuskatzea, dagoen egoera akustikoa egiaztatzeko.	Udalerria	Durangoko Udala	

7.2.9	Epe luzerako estrategia	Irizpide akustikoak plangintzan txertatzea	Irizpide akustikoak sartzea Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren prestaketan.	Udalerria	Durangoko Udala	
7.2.10	Epe luzerako estrategia	Industri zarataren kontrola	Enpresekin egiteko lanak koordinatzea, ahalik eta eragin akustiko txikiena gerta dadin.	Udalerria	Durangoko Udala Industri jarduerak	
			Egunez lanik zaratatsuenak planifikatzea.	Udalerria	Durangoko Udala Industri jarduerak	
			Eremu sentikorrenen isolamendua indartzea.	Udalerria	Durangoko Udala Industri jarduerak	
			Lan-aretoak egokitzea.	Udalerria	Durangoko Udala Industri jarduerak	
			Ateak eta leihoak itxita lan egitea.	Udalerria	Durangoko Udala Industri jarduerak	
			Isilgailuak edo emisio-mailak murrizten dituzten beste irtenbide batzuk instalatzea.	Udalerria	Durangoko Udala Industri jarduerak	